



Erleak, satorrak, beleak

Gaizka Sarasola

Erleak, satorrak, beleak

Gaizka Sarasola

Izenburua: Erleak, satorrak, beleak.

Lehen edizioa: 2016ko apirila.



edizio honena **edol**



hitzaurrearena Galder Perez.



testuarena Gaizka Sarasola.



hitzostearena Oier Guillan.



azaleko irudiarena Iratz Inziarte.

Zuzentzaileak: Karmele Etxabe eta Amaia Apalauza.

argitaletxea **edol**

argitaletxeaedo@gmail.com

www.argitaletxeaedo.org

Diseinua: **edol**

Inprimaketa: Leitzaran Grafikak. 20140 Andoain.

ISBN: 978-84-944108-2-6

Lege gordailua: SS 242-2016

Aurkibidea

<i>Urak ttiki dire (Hitzaurrea: Galder Perez)</i>	9
<i>Lur azpikoak</i>	49
<i>Talaka</i>	75

Hitzostea

<i>Gaizka Sarasolaren teatroa:</i>	
<i>ahotsen barruko ahotsa (Oier Guillan)</i>	95

Biografia

<i>Gaizka Sarasola</i>	107
------------------------------	-----

Erleak, satorrak, beleak

Gaizka Sarasola



Literola

UraK ttiki dire

Gaizka Sarasola

Hitzaurrea:
Galder Perez

Espaloitik

adarren itzalera

Hitzaurre gisa

Galder Perez

Duela hamabost urte ezagutu genuen Gaizka Sarasola. Ane Zabala eta biok Nafarroara joan ginen, Bortzirietara, *clown* ikastaro batean parte hartzera. 2000. urteko uda bero hartan, antzerkiaren jolasa eta hamaika sekretu ikasi eta konpartitu genituen Gaizkarekin, Beran. Ordutik eta gaur egunera arte, ez dugu antzerki eta lagun arteko harremana eten Bortziriekin. Udazken askotan, Gaizkak eta Mairu antzerki tailerreko lagunek Lesakara gonbidatu gaituzte, Keinu Leihoak zikloan parte hartzera.

2010ean, Lesakara joan ginen, 8 *begi* antzezlanara joatzera. Afalostean, atzera begira jarri ginen hango lagunekin, garai zaharrak barre artean gogoratuz, eta, ausardiaz, aurrera begira ere jarri ginen, atsegin dugun legez, amesten eta planak egiten. Eta orduan sortu zen proposamena: Gaizkak antzerki testu bat idatziko zuen guretzat. Edo guk eskatu genion, beharbada. Egia esan, gutako inork ez du detaile hori ondo gogoratzen. Bai, ordea, Gaizkaren hasierako asmoa: orain arte zapaldu gabeko bideetan ibiltzeko gonbita egin nahi zigun, komediatik dramara pasatzea, barretik negarrera, alaitasunetik minera, tripatik bihotzera. Urtebete elkarren berri izan barik egon ostean, 2011ko udazkenean, ezustean

jaso genuen Gilkitxaro taldeko kideok Gaizkaren *Urak ttiki dire* antzezlanaren testua; sekulako oparia, altxorra.

Urak ttiki dire ere udazkena da. Neguaren gaueko bi-dean, korrontearen kontra eta noraezean doazen bi pertsonaia agertzen dira obran. Ilunpeko lainoen artean guztiz galdu aurretik, askatasunaren argitasun bila doaz Ilargi eta Willy. Lehenengo irakurraldian, argi ikusi genuen asmoa bete zela; Gaizkak berezkoa duen xamurtasunarekin, tragedia latza bizi dutenen bizipena idatzi zuela, alegia. Bizitzaren borroka den horri eta diren beste guztiei ere kantatzen die, bizitzak uzten dituen hutsuneei, beharrei, ezbeharrei, desioei... Funtsean, bizitzeko eta bizitzako borroken ondorioz sortzen diren hamaika minei.

Prest ginen ur handietan trabesia hasteko. Ur handietako olatu erraldoiak, baina, ez ziren poesia eta tragedia soilik; antzezlanak planteatzen zituen pertsonaiekin, espazioarekin eta euskalkiarekin ere nabigatu behar genuen. Gaizkak urtebete behar izan zuen testua idazteko, eta guk bi urte behar izan genituen testuarekin jolasteko, eszenaratzea planteatzeko, pertsonaia barneratzeko eta antzezlanari bizitza emateko.

Pertsonaia nagusi bi ditu antzezlanak: Ilargi eta Willy. Bada hirugarren bat ere, baina, inork gorpuztu beharrean, soinu bihurtzea erabaki genuen. Basoko leku sekretu batera egunero datorren Ilargi da protagonista, arotzaren alaba eta zazpi senideko familia batekoa, ziurrenik. Ia urik ez duen bainera zahar batean hankak freskatu eta garbitzera etortzen da, lan handi, astun eta gogorren mina baretzeko desioz. Gaur, ordea, kanpotik etorritako norbaitek eguneroko ustezko lasaitasun hori hautsiko du. Willy pertsonaia misteriotsua agertuko da; Nafarroako baso batean liztor asiarra arrotza den bezala, halakoxea da Willy Ilargirentzat. Urik ez duen baso

honetan, mendeku gosez dator, ur handietan murgiltzeko gertu, hainbeste mendetako minari ezarritako minez.

Akzioa basoan gertatuko da. Ilargik, bere lehenengo hitzekin batera, espazioaren deskribapena egingo du: “Lurra idorra dago, zapalduriko morkotsa da bidea, hemen ez dago iraganeko iratze metak bertzerik”. Antzezlanak aurrera egin ahala eta meta-antzerkiarekin jolastuz, Willyk ere espazioa deskribatuko du beste elkarrizketa batean: “Antzerki baterako agertokia dirudi. Basoaren erdian, bidexka baten bazterrean, iturri magiko bat. Bixia, misteriotsua; lilura ere sortzen du basoan galdutako bainera batek errekastoa zen lekuan”. Basoa hitzetan bazegoenez, elkarrizketetan ez genuen basoa sortu eta erakusteko beharrik sentitu. Sinbologiaz beterik dagoen elementu bakar batek osatuko zuen espazio eszeniko nagusia: kutxa batek, besteak beste, bainera irudikatzen. Eta, ezkutuan, ia ilunpean, hildako animalia baten arrasto oldarkor bezain sinbolikoa; besterik ez. Testuak papelean egiten duen bezalaxe, abstrakzioarekin jolastu nahi genuen taula gainean. Ikusleak-irakurleak interpreta zezala irudimenezko enbor eta adar hauen itzalen edertasunak gordetzen duen guztia. Horrela, bada, eta ia-ia ohartu gabe, zuhaitzik gabeko baso bat sortu genuen. Ondoren, elementu hiritarrak izan daitezkeenak gehitu genizkien pertsonaiei: denbora eta ezinegona adierazten duen erlojua, eguzkia eta ezkutalekua irudikatzen aterkia, liztorraren koloreak dituen maskara asiarra... Gaizkak bere eremura eramanez gintuen testuarekin, eta guk geurera ekarri genuen testua. Basoa eta hiria nahastu genituen nolabait, Lesaka eta Bilbo, ez baitira hain ezberdinak Euskal Herriko leku batean edo bestean sufritzen ditugun minak eta desio ditugun ametsak.

Elkarrizketei dagokienez, testuaren nafarrera kutsua hitzez hitz errespetatzeko asmoa izan genuen hasieratik. Egileak testuarekin jolasteko, apurtzeko eta esperimentatzeko askatasun osoa eman bazigun ere, testua bere horretan mantendu nahi izan genuen. Batzuetan ausartegiak ez ote ginen izan galdetzen diot neure buruari, baina horrek ere izan behar du antzerkiaren jolasa. Errespetu handia genion testuan gordetako guztiari; Gaizkaren bihotzari, alegia. Erronka ederra ere bazen, Gilkitxaroko taldekide batek idatzia ez zen testu bat taularatu behar baikenuen lehenengoz, gure taldeak hogeitau urte betetzen zituenean, hain justu. Uste genuen, gainera, Gaizkaren hitzak paperean zeuden bezala eraman behar genituela ahotsetara, hotsetara eta pertsonaien bihotzetara. Antzerkigile izateaz gain Gaizka musikari ere izanik, testu guztiek bezala, honek ere baditu berezko melodia eta erritmoa. Batzuek penari ihes egiteko kantatzen duten bitartean, Gaizkak oraingoan letrak jarri ditu paperean.

Basotik ihesean datorren katagorriarekin bere testuaren poesia, edertasuna eta mina partekatzen irudikatzen dut Gaizka. Katagorriak, belarriak tente, testuaren gaineko galdera mordoa egiten dizkio, eta Gaizkak, erantzun. Katagorriarekin konpartitu nahi baitu testuan gordetzen den oro, pentsamendu edo beldur edo oroitzapen izatetik sekretu izatera pasatzeko. Lesaka inguruko basoak bezala, sekretuz beterik dago esku artean duzun testu hau. Basoko lurraren hauts bihurtu aurretik, aska ezazu zure bihotza lerro hauen arteko bidezidorretatik, zalantzasz beteriko eta euririk gabeko udazken mingarri bezain eder honetan. Eta biharko utziko dugu neguko elurteen itxaronaldia, bai, eguzki izpi epelekin elurra urtu arte.



Argazkia: Nerea Andres

Urak ttiki dire

Gaizka Sarasola

Estreinaldiaren fitxa:

Estreinaldia: 2013ko azaroaren 8an
(Pabiloi 6 aretoa, Deustua)

Testua: Gaizka Sarasola

Zuzendaria: Kerra Gabikagogeaskoa

Jokalariak: Ane Zabala & Galder Perez

Argi diseinua: Zigor Gorostiola

Teknikariak: Ales & Axi

Espazioa, jantziak eta ekoizpena: Gilkitxaro

(Basoko bide bazterrean, harri artean jausten den erdi agorturiko ur-xirriparen oinean, bainera bat, garai batean ur-bidea zen lekuan. Bertan, emakume bat, ILARGI deituko duguna, apenas urik duen baineran bainua hartzen. Soinu bat aditzen da. Norbait edo zerbait dabil inguruan.)

ILARGI: Nor da? ... Nor dabil hor? ... Nor da? ... Ez al da inor?

(Bainatzen jarraitzen du. Tipo arraro bat ageri da erdi ezkutuan, WILLI deituko duguna, gabardina bat jantzita. ILARGIk ez du ikusten. Desagertzen da. Soinuak, berriz ere.)

ILARGI: Nor da? ... Nor dabil hor? ... *(Baineran ezkututzen du bere burua. Burua pixkanaka ageriz)* Nor da! *(Baineratik atera eta bere burua lurrean duen kaparekin estaliz)* Lurra idorra dago onddotarako. Gaztainak aspaldi bilduak ziren. Zapaldiriko morkotsa da bidea. Hemen ez dago iraganeko iratze metak bertzerik. Zeren bila zabiltza?! Zeri begira?! Agertu! Agertu!

(WILLI agertzen da.)

ILARGI: Hara! Mozorroa!

WILLI: Eta zu? Lamia?

ILARGI (*hankak erakutsiz*): Hankak freskatu eta garbitze-
ra etortzen naiz honat.

WILLI: Urak ttiki dire inor garbitzeko.

(*Isilunea.*)

ILARGI: Aspaldi honetan, denetarako dire ur ttikiegiak.
(*Isilunea*) Eta zu? Zer zabilta hemen?

WILLI: Bueltaxka bat egiten.

ILARGI: Hemen? Bero honekin?... Eta gabardinarekin?!

WILLI: Inoiz ez dakigu noiz egingen duen euria.

ILARGI: Noski! Horregatik gure erreka idortuak eta iturri
agortuak; edozein momentutan euria egiten duelako!

WILLI: Noizbait ere egingen du berriz, eta ordurako prest
egon behar.

(*Isilunea.*)

ILARGI: Beno.

WILLI: Beno.

ILARGI: Ba... Agur!

WILLI: Agur.

(*Biak geldirik, elkarri begira. Isilunea.*)

ILARGI: Hemen geldituko zara?

WILLI: Ez dakit. Eta zu?

ILARGI: Baliteke. Zergatik?

WILLI: Pssss.... Zergatik?

ILARGI: Nola, zergatik?

WILLI: Bai. Zergatik?

ILARGI: Zergatik zer!

WILLI: Zergatik geldituko zaren!

(Isilunea.)

ILARGI: Oraindik ez dut bainua bukatu.

WILLI: A! Etxekoak ez dituzu zain?

ILARGI: Etxean, denbora gehiegi daramagu zain.

(TXIRRINDULARI bat pasatzen da, goxokiak banatzen, ereserki moduko bat entzuten den bitartean. WILLIk aurpegia ezkututzen du.)

WILLI: Bainuarekin jarraituko duzu, beraz?

(Isilunea.)

ILARGI: Hor jarraituko duzu niri begira?

WILLI: Begira, begira... Nahi ez baduzu, ez. Baina hemen...
Hemen, oraingoz, bai.

ILARGI: Ez zinen zu ere bainua hartzera etorriko, ezta?
Sartu nirekin! Kendu gabardina, eta sartu nirekin!

WILLI (*izuturik*): Ez, ez, ez, ez...!

ILARGI: Lotsatzen zara?

WILLI: Ez. Ez dut nahi.

(*ILARGI, kapa lurrean utzi, eta baineran sartzen da.*)

ILARGI: Zertara etorri zara, bada?

WILLI: Leku polita da.

ILARGI: Aitak beti erraten zigun hemen izan zela zorionsuen. Udaberrian, elurak urtuta, hemen hartzen zuela indarrak handiena errekak, eta, ur biziaren kontra, amuarrain eta izokin indartsuenak errekan goiti igotzen zirela, hain salto handiz, arrainak airean eskuz harrapatzen baitzituzten, zakuka! Berak eta bere lagunak. Eta orduan izan zela zorionsuen. Baina lagunak eramaten ditu biziak. Eta putzuak utzi, memorian galtzen diren zapaburuekin. Ez du aspaldian elurrik egin. Bainera hau jarri zuten, ur pixarrak biltzeko; baina lagunak eramaten jarraitzen du biziak. Aitak beti erraten zigun hemen izan zela zorionsuen, mutu gelditu aitzinetik.

(*Isilunea.*)

WILLI: Eta zu, hemen zara zoriontsuen?

ILARGI (*haserre*): Bai! Ederki egoten naiz hemen, baka-
rrik, iturri idor honetan herdoilduriko bainera bat-
tean, JA-JA-JA algaraka, aingira eder bat ahotik noiz
sartuko zain!

WILLI: Eta, orduan, zer egiten duzu hemen?

ILARGI: Etxeko pisutik libre naiz hemen... eta... eta hankak
freskatzen ditut! Erran dizut! (*Gero eta haserreago*)
Eta gorputza garbitu! Eta nor zara zu, niri deus gal-
detzeko? (*Baineratik atera eta WILLI* irengana zuzen-
duz) Ez dakit nor zaren! Ez dakit zer zaren! Ez dakit
zer egiten duzun! Zer zabilta hemen?! Zer zabilta
hemen, bero honekin eta gabardinarekin!

*(TXIRRINDULARI bat, ziztu bizian, goxokiak botaz.
Ereserki ozena. ILARGIK eta WILLIK elkar besarkatzen
dute, izuturik. Pixkanaka, egoeraz jabeturik, elka-
rrengandik aldentzen hasten dira. ILARGIK, harritu-
rik, WILLIren sabelaldea ukitzen du.)*

WILLI: Goxokiak, berriz. Beti goxokiak. (*Isilunea*) Willi.

ILARGI: Zer?

WILLI: Willi naizela.

ILARGI: Eta zer egiten duzu hemen, Willi? Eta ez erran
“bueltaxka bat egiten”, eta ez erran euria egin deza-
keela, eta ez erran polita naizela... Ez erran goxokirik.
Zer egiten duzu, Willi?

WILLI: Sekretua da.

ILARGI: Noski. Sekretua.

WILLI: Sentitzen dut.

ILARGI: Noren sekretua?

WILLI: Nire sekretua.

ILARGI: Baina zure eta nor gehiagoren sekretua?

WILLI: Nirea! Nirea bakarrik!

ILARGI: Zurea bakarrik?

WILLI: Bai!

ILARGI: Zuk bakarrik ezagutzen duzu zure sekretua?

WILLI: Baietz, bada!

ILARGI: Hori ez da sekretua!

WILLI: Nola ez dela sekretua!

ILARGI: Ezetz, ba! Sekretua izateko, biren kontua izan behar da guttienez! Norbaiti kontatu beharra diozu; psikologoari bederen! Bertzela ez da sekretua! Izanen da ideia bat, izanen da amets bat, izanen da pentsamendu bat, izanen da beldur bat, izanen da oroitzapen bat... baina ez sekretua!

WILLI: Baina, orduan, edozeinek jakiten ahal du zein den nire sekretua!

ILARGI: Edozeinek ez; zuk nahi duzun horrek! Gerta dai-teke zuk nahi duzun horrek bertze norbaiti ere kon-tatzea, eta hori da arazoa, sekretuak ere dagoeneko ez direla sekretu, ezkutukoena ere agerikoa dela; baina, norbaiti kontatzen ez badiozu, ez da sekretua izatera ere iritsiko, eta, hala ere, noizbait jakinen da, eta ez da inoiz sekretua izan nahi zuen sekretua izanen.

(Isilunea.)

ILARGI: Kontatu niri. Kontatu niri, eta, horrela, bien arte-ko sekretua izanen da.

WILLI: Aukeran, ez. Horrela ez du bertze inork jakinen.

ILARGI: Baina azkenean jakinen da.

WILLI: Momentuz, ez kontatzea hobe.

ILARGI: Konturik ez. Hemen ere ez. *(ILARGI baineran sar-tzen da)* Aita egurra egiten, ama sukaldean, eta, bat-batean, etxea eta inguru guzia leku arrotza da, arro-tzez betea, eta bera inor baino arrotzago, arrotza bere etxean, eta gero denak joaten dire, bera ere beraiekin, eskuetan aizkora eta alaba eraman didate erraten du aitak, eta etxeko atarian esertzen da, gaur arte, mutu, begiak urrutira baina barrura begira, eskuetan aiz-kora... Beraiek gerrian pistola erran zuen auzokoak, eta ordutik ez dago bertze konturik, kontatzen di-ren egunak bertzerik, zenbat egun joan diren, zen-bat egun falta diren, sagardoak basoan hausten du

isiltasuna, gosaritan, bazkaritan, afaritan... eta amak beti laurentzat prestatzen du janaria.

(Isilunea. TXIRRINDULARI bat pasatzen da, ereserkiaren doinupean. WILLIK eta ILARGIK ez diote kasurik egiten. Bat-batean, ILARGI zutitu eta oihuka hasten da.)

ILARGI: Demonio xuhurra!

(WILLI harrituta.)

ILARGI: Ez du goxokirik bota!

WILLI: Nekaturik egonen zen, edo asperturik, edo... edo auskalo!

ILARGI: Eta niri zer! Lanean aritzen naizenean ez du inork galdetzen nire aldartearen berri! Beraren aurrekoak ere nekaturik ibiliko dire, baina dotore aski bota dituzte karameluak!

WILLI: Hori, bada! Nahi adina badituzu lurrean. Zertarako gehiago?

ILARGI: Ez zaizkit goxokiak gustatzen! Detailea da. Detailea! *(Baineratik atera, eta txirringularia joan den norabiderantz oihukatuz)* Xuhurra!

(Isilunea.)

ILARGI *(lasaiago)*: Hala ere, kurioa da.

WILLI: Bidean bukatuko zitzaizkion.

ILARGI: Ahantzi goxokiak! Zapalduko morkotsa den bide galdu honetatik pasatzea. Hori da kuriooa.

WILLI: Bada, oraindik gehiago pasatuko dire.

ILARGI: Handik... hemendik... eta harat?

WILLI: Segizio handiena falta da, erregea barne, bere urrezko jantzi doratuekin.

ILARGI (urduri): Erregea? Benetan? Bizikletan, hura ere?

WILLI: Loditasuna bizi txarraren seinale omen! Deus ere ez da lehen bezala. Egun, aberatsek, baina baita pobreek ere, diruak ordaintzen dituzte izerdia ateratzeko.

ILARGI: Nora joan jakin gabe lasterka aritzea izanen da hori!

WILLI: Okerrago. Inora joan gabe. Zinta baten gainean.

ILARGI: Mandoa errotari biraka bezala.

WILLI: Horregatik banatuko dituzte goxokiak.

ILARGI: Mandoari azukrea bezala.

WILLI: Banketxeetan ere, denetan eskaintzen dituzte karameluak.

ILARGI: Errotari biraka jarraitzeko.

WILLI: Mandoa akuiluarekin xaxatzen da.

ILARGI: Eta guri ziria sartu.

WILLI: Niri ez.

ILARGI: Ez?

WILLI: Niri, makila! (*Isilunea. Poliki-poliki, baineraren inguruan bueltaka, gero eta azkarrago, gero eta ozenago*) Aginte makila... alkatearen zakila... eta zilarrezko punta zorrotza... sartu didate ipurditik... erran dut laguna... erran dut anaia... erran dut aita... erran dut ama... Ez! Ama ez dut erranen... utzi ama bakean... sartu dadila ipurdian eta atera dadila ahoan, eta bukatu bedi ipuina, baina ez dut behin batean bazen ama bat erranen... eta buka dadila ipuina edo zuen makila bihurtuko da nire eztena... zuzena... hemen dena.

(*WILLIk gabardina zabaltzen du ILARGIren aitzinean, eta berehala itxi.*)

ILARGI: Ai ama!

(*Berriro ere gabardina zabaltzen du, polikiago. Gerrira itsatsirik daraman lehergailua erakusten du.*)

ILARGI: Eta hori?

WILLI: Batzuetan, haizeak adarrak hausten ditu.

(*Isilunea. WILLIk gabardina lotzen du berriz ere.*)

ILARGI: Orain ulertzen dut. Baina ez dut ulertzen.

WILLI: Geure burua ere zail bada konprenitzen, bertzerena nola?

ILARGI (*oihuka, erdi negarrez*): Ni saiatzen naiz! Saiatzen naiz aita aditzen, saiatzen naiz ama lokarrarazten, saiatzen naiz ahizpari itxaroten, baina ezin dut, ezin dut behar bezala, eta horregatik etortzen naiz honat garbitzera, nire azal freskoaren lurrina usain dezaten bederen. Eta zuk, zuk hau dena lehertuko duzu! (*Negarrez*)

WILLI (*urduri*): Ixo! Ixo, edo norbaitek adituko zaitu!

ILARGI: Non garbituko ditut nik hankak gero?! E! Erran! Non harrapatuko gure aitak berriro ere amuarrainak! Non! Non, dena pikutara botatzen baduzu!

WILLI: Isildu, mesedez!

ILARGI: Mamarro hutsa zara! Dena galduko duen mamarroa!

WILLI: Ixo!

(WILLIk, ILARGI besoetatik heldu, eta ahoa estaltzen dio. ILARGIk, askatu nahian, kolpe ttiki bat ematen dio WILLIri ukondoarekin, sabelean. WILLIk ILARGI askatzen du.)

WILLI: Ai! (*WILLI bere sabelaldeari begira gelditzen da, urduri*) Ostia! (*Gero eta urduriago*) Ostia, ostia, ostia... (*Noraezean lasterka*) Martxan jarri duzu... ostia! Lehertzera doa! Zer egin duzu? Ostiaaaaa...!

ILARGI (*barrez*): Hori nahi zenuen, ezta? Bada, listo! Akabo!

WILLI: Baina orain ez, jode! Non da erregea? Non da erregea? Lehertzeaz nago! Ostia! Ostia! (*TXIRRINDULARIAK joandako alderantz abiatzen da, lasterka*) Oraindik ez! Oraindik ez!

ILARGI: Hortik ez! Bertze aldetik!

(*WILLI* *agertokia gurutzatzen du, oraingoan TXIRRINDULARIAK agertu diren aldetik aterez.*)

WILLI: Ostiaaaaaaa!

ILARGI: Mugi, Willi, mugi! Mugi! (*Isilunea*) Hiltzeko ere, presaka. Bizitzako erabakirik inportanteenaren aurrean ere, lasterka, ume bat jolasean bezala. Umeak, axolagabe, edalontzitik izotz zati bat hartzen du eta lasterka joaten da zubira, izotza uretara bota eta lasterka itzultzen da amarengana, barrezka, axolagabe, izotzarekin norgehiagokan, izotza zena erreka dela jakin gabe, edo bai, errekarakin norgehiagokan, ezin irabaziz, ezin galduz, eta amarengana ailegatu eta bertze izotz zati bat hartzen du, eta horrela bat, bi, hiru, lau aldiz... Eta beti kontent, badakielako erreka ailegatzen dela bera baino lehen, baina erreka ailegatzen dela beraren ondoren ere, eta horregatik dago kontent, umetan ez zaigulako irabaztea inporta, galtzeak ematen duelako min, eta berak ezin du errekararen kontra irabazi, baina ezin du galdu, eta amarekin dago. Eta, handitzean, amaren babesak galtzen du, uretara izotza botatzen jarraitzen du, baina dena ez da hain alai, hain axolagabea. (*Isilunea*) Laster, iluntzen hasiko du, eta ez da deus ere sumatu.

(WILLI sartzen da, eskuetan argizaiola bat duela.)

ILARGI: Willi!

WILLI: Erdiak ustel!

ILARGI: Eta?

WILLI: Ez zegoen martxan. Ez da lehertu.

ILARGI: Bistan da!

WILLI: Eta eskerrak! Erregea urruti da oraindik.

(Isilunea.)

ILARGI: Eta hori? *(Argizaiolarengatik).*

WILLI: Laster, iluntzen hasiko du. Igual argia beharko dut, bidea non den ikusteko.

(WILLI lurrean esertzen da. Argizaiola ere lurrean uzten du, eta piztu. Begiak ixten ditu.)

ILARGI: Nekaturik dirudizu.

WILLI: Nekaturik nago.

ILARGI: Heriotza gainean eramatearen zama.

(Isilunea.)

WILLI: Heriotzak ez; bizitzak nekatzen du.

ILARGI: Horregatik egiten dugu lo!

WILLI: Bai.

ILARGI: Lo egin, bada.

WILLI: Horretan ari naiz.

(ILARGI, poliki-poliki WILLIrengana hurbilduz.)

ILARGI: Nondik zatoz?

WILLI: Urrutitik.

ILARGI: Eta bide guzian gabardina kendu ezinik?

WILLI: Nola, bertzela?

ILARGI: Ez duzu inor utzi urrutian?

WILLI: Denok uzten dugu zerbait atzean.

ILARGI: Eta?

WILLI: Norbaitek guregatik negar eginen duela pentsatzean indartzen gara.

ILARGI: Nire malkoek ez dute errekarik handituko.

WILLI: Aukerarik banu, begietan muxu emanen nioke, ezpainenetan, mateletan, lepoan muxu, bere arnasa nire belarrietan sumatu, ondoan nuela loak hartu, eta gehiago ez ernatu. Hain nengoek nekaturik!

ILARGI (*oihuka*): BOOM!

(*WILLI* *begiak irekitzen ditu, ikaraturik, eta oihuka hasten da.*)

WILLI: Dioooooos!

(*WILLI* *lurretik altxatu, eta alde batetik bertzera, ezin egonean.*)

ILARGI: Jatzar zite!

WILLI: Dioooooos!

ILARGI: Erregea etorriko zaizie!

WILLI: Dioooooos!

ILARGI: Erregea pasatuko da, eta zu hemen errezoan!

WILLI: Dioooooos!

ILARGI: Erregea pasatuko da, eta zu argiari begira!

WILLI (*bat-batean geldituz*): Zakurraren ipurdian dago eta! Dios!

ILARGI: Ipurditik sudurrera gorpu bat baino ez dago.

WILLI: Eroa!

ILARGI: Itxura horrekin, gabardinarekin, lehegailua gerrira lotua, bere burua lehertzeko prest, eta eroa ni.

WILLI (*lasaituz*): Urruti dire oraindik, baina erne egon beharra dut, bai! (*Bainerara igotzen da, urrutira begiratzeko*) Urruti dire, baina ni erne!

(*ILARGI WILLIri begira.*)

ILARGI: Guttien espero denean ikusten da katagorria adarretik zintzilik.

WILLI: Katagorria, non?

ILARGI: Adarretik zintzilik.

WILLI (*adarretara begira*): Baina zein adar?

ILARGI: Edozein. Ez dakit.

WILLI (*etsipenez*): Jode!

ILARGI: Baina zer inporta zaio katagorria hiltzear denari?

(*Isilunea. ILARGI argizaiolaren ondoan esertzen da.*)

ILARGI: Nahikoa argi emanen dizu?

WILLI: Ez dakit.

ILARGI: Etorri aurretik bukatzen bada?

WILLI: Haztamuka eginen dut harramazka.

ILARGI: Zorroztasunak argia eskatzen du.

WILLI: Argizaririk gabe ilunduko gara.

ILARGI: Eztirik gabe garrastuko gara.

WILLI: Indartsuena gailenduko da.

ILARGI: Eta gu beti gose!

(Isilunea.)

ILARGI: Willi.

WILLI: Zer?

ILARGI: Gelditu nirekin.

WILLI: Zer?

ILARGI: Gorde eztena, ahantzi erregea, eta gelditu nirekin.

WILLI: Ezin dut.

ILARGI (*WILLI* irengana hurbilduz): Hemen, nire begiak; hemen, nire ezpainak, masail eta lepoak. Hemen, nire arnasa. (*Muxu ematen dio*) Har ezazu lo. Hartu lo nire ondoan, baina, gero, ernatu. Nire laztanak zaitu ernatuko.

WILLI: Huntza izan beharrak iltze bihurtzen ahal ditu laztanik xamurrenak ere.

(Muxu luzea. Bitartean, txirrindulari bat pasatzen da, ereserkiaren doinupean. WILLI, ILARGI irengandik alden du, eta erregea etortzekoa den alderantz begira jartzen da, urduri.)

ILARGI: Zer duzu?

WILLI: Huts egitearen beldurra!

(ILARGI haserre, eta WILLiri oldartuz.)

ILARGI: Huts egitearen beldurra?! Egiatan diozu?! Huts egitearen beldurra?! Baina zer ohartuko zara zu mila puskatan lehertzean huts egin duzun edo asmatu ote duzun?! Ze ostia ohartuko zara!

WILLI: Ez dakit, baina zuzen jokatzeko dudala pentsatu nahi dut.

ILARGI: Baina ez dizu pitorik ere balio horrek, Willi! Ez dizu pitorik balio! Hila zara! Berdin dio zuzen edo oker! Hila zara!

WILLI: Bai... baina azkenean... azkeneko momentu horretan...

ILARGI: Kuku bat. Kukuaren kantu bat baino ez da hori, Willi. *(Isilunea)* "Aukerarik banu" erran duzu, "aukerarik banu". Eta baduzu: gelditu nirekin, elkartu nirekin. Aukerarik baduzu; zeure erabakia da.

WILLI: Ziztatu, eztena galdu eta hiltzea ez da erlearen erabakia.

ILARGI: Pikutara erleak! Pikutara erleak, Willi! Urrutitik heldu dire handiagoak, gehiago. Akabo erleak, eta akabo gu ere; azkenetan gaude. Bilatu dezagun bukaera goxo bat. Zer inporta diote erregeek, sekretuek, liztorrek, karameluek... Zer inporta diote!

WILLI: Dena. (*Isilunea*) Denak inporta dio. Begiratu nire ipurdiari.

(*ILARGIk, erdi negarrez, WILLIri erasotzen dio.*)

ILARGI: Sakatu botoiari, bada! Sakatu botoiari, eta akabo!

WILLI: Oraindik ez!

ILARGI: Zergatik ez?! Sakatu botoiari!

WILLI: Ez!

(*WILLIren eta ILARGIren arteko borroka. WILLIk ILARGI geldiarazten du. Borrokaren ondoren, lurrean bukatzen dute, poliki-poliki.*)

ILARGI: Egin klik! Itzali argia, itzali ni, itzali zu, itzali iturri agortua.

(*Isilunea.*)

WILLI: Polita da. Gustatzen zait.

ILARGI: Zer?

WILLI: Leku hau. Polita dela.

ILARGI: Aitak beti erraten zigun hemen izan zela zoriontsuen. Udaberrian, elurrak urtuta, hemen hartzen zuela indarrik handiena erreka, eta, ur biziaren kontra, amuarrain eta izokin indartsuenak errekan goiti igotzen zirela, hain salto handiz...

WILLI (*moztuz*): Bai, badakit. Kontatu didazu.

(Isilunea. ILARGI altxatu eta bainerara hurbiltzen da.)

WILLI: Antzerki baterako agertokia dirudi. Basoaren erdian, bidexka baten bazterrean, horrelako iturri magiko bat. Bitxia, misterioitsua; lilura ere sortzen du basoan galdutako bainera batek, erreka toa zen lekuan.

ILARGI: Batzuek ongi dakite erreka garbiena bainera ilun bihurtzen. Eta horrek lilura gutti. Horrek beldurra. Izua. (*ILARGI baineran sartzen da*) Eta hau ez da antzerkia. (*Baineran ezkututzen du bere burua. Oihukatuz*) Willi, etorri nirekin!

WILLI: Ez da hor lekurik izanen biontzat.

ILARGI: Elkarren ondoan, estu-estu kabituko gara!

WILLI: Bainera estua ibai zabal bilakatzen ahal da igeri egin ezin duenarentzat. Sobera zabal, hain zabal igeri egin ezin duenarentzat, hain zabal... hain zabal...

(Isilunea.)

ILARGI: Kristal baten atzean ageri da. Kristal baten atzean ezkututzen da. Hostoak galdutako zuhaixkaren itzala, bere luzean eri, inarrosia. Azala xuri, eta behatzak... behatz meharrak, urduri. Urduri behatzak, urduri solasak, urduri irriak, urduri... ur guri... ur guriak begietara josiak. Eta haren begietan ikusten dut putzua, umetan jolasten gineneko putzua. Eta orduan ez nuen ikusten, baina orain ikusten dut. Orain ikusten dut ahizpa umetan nirekin uretan, eta orduan

ez nekien, baina orain ikus dezaket umea uretan eta hanketatik soka luze bat zintzilik, eta sokari lotua harritzar handi bat. Orduan ez nuen ikusten eta orain ikusten dut, haren begietako ur gurietan ikusten dut, murgildu naiz eta ikusten dut, umea uretan, harri handi bat lotuta berari, eta zama horrekin umea igeri, kristal baten atzean zait ageri... (*ILARGI*k bere burua agertzen du baineraren barrenetik) Kristal baten atzean zait ezkututzen... inarrosia... eri.

(*Isilunea. ILARGI* altxatzen da.)

ILARGI: Arotza zen gure aita.

WILLI: Aulkiak egiten zituen?

ILARGI: Ezpatak.

WILLI: Ezpatak?

ILARGI: Bai. Ezpatak. Hamaika lepo moztu dituzte gure aitak egindako ezpatek; urrutian.

WILLI: Lepoak merkeak dire urrutian.

(*Isilunea.*)

ILARGI: Kamustu ziren aspaldian hemengo ezpatak. Ugarriak ziren, garai batean, inguruko mendietatik jausitako ur-laster eta errekek edatera ematen zituzten errota eta burdinolak. Baina, orain, ez da urik harririk mugituko duenik, surik harririk gorituko duenik. Hemen, ez ogirik eta ez aizkorarik. Lau sagar, lau sagar baino ez.

WILLI: Sagardoa baduzue, beraz?

ILARGI: Sagardoa badugu behintzat! Mozkortzeko! Bizitzari kantatzeko! Tripa hutsik, eskua geldirik, baina kantari!

(Isilunea.)

WILLI: Penari ihesi egin nahian kantari?

ILARGI: Nahi eta ezin! Mozkorraren mozkorrez, azkenean penak hiltzen gaitu.

WILLI: Intxaurra zimeltzen bezala. Dios!

ILARGI (*alai*): Hori da! Intxaur zimelak eta adar lehorrak! Basoko adar lehor guziak bilduko ditugu! Intxaurraren adarrak, gaztainarenak... Eta adar mukuru erraldoia pilatuko dugu mendiaren puntan, eta su eman!

WILLI: Akabo konposta!

ILARGI: Hori da! Su eman! Eta suaren keetatik hodei ilunak sortuko dire, eta zeruan goiti igo eta, hoztean, elurra ariko du! Berriz ere elurra ariko du, eta urak handituko dire!

WILLI (*serio*): Hori, edo seme-alabak urrutira bidali, hango urak ebasteko. Zergatik ez? Herdoilduriko ezpata kutxatik atera, lepoak moztu, eta ura ekarri.

ILARGI (*haserre*): Willi!

WILLI: Zer! Zakuak bete behar dire. Adarrak sartu edo bu-ruak sartu. Baina zakuak bete! Bete! *(Isilunea)* Zaku hutsak haizeak eramaten ditu.

ILARGI: Eta nork garraiatuko ditu zakuak?

WILLI: Bakoitzak berea.

(ILARGI, triste, poliki-poliki bainerara hurbilduz.)

ILARGI: Bakoitzak berea... eta amak denena... barraskiloak etxea nola... barrenetik... balde, saski, marmita eta kapazoak... zenbat poltsa!... barraskiloak etxea nola... “bere entrañako odola”... barraskiloak etxea nola... zenbat maitasun arrasto!

(ILARGI baineran sartzen da. Ereserkiaren doinu-pean, txirrindulari bat pasatzen da, ziztu bizian, WILLI bainera atzean ezkututzen delarik. Musika ez da itzaltzen; kontrari, gero eta ozenago entzuten da. WILLI bere ezkutalekutik ateratzen da, urduri.)

WILLI: Badatoz! Badatoz! Sumatzen dut. Badatoz. Eta zu hemen, oraindik!

ILARGI: Gelditu nirekin, Willi! Berriz ere elurra ariko du eta urak handituko dire! Eta igual hemen izanen gara zorionsuen! Gelditu nirekin!

WILLI: Ezin dut! Ezin dut! Ezta zuk ere! Zoaz etxera! Zoaz hemendik etxera!

ILARGI: Ez!

WILLI: Nola ezetz!

ILARGI: Ezetz! Ez dut bainua bukatu.

WILLI: Bainua bukatu? Dios! Hau ez da jolasa!

ILARGI: Badakit. Nik badakit. Zuk badakizu?

(Ereserkiaren doinua gero eta ozenago. WILLI, urduri, alde batera eta bertzera. ILARGI begira.)

WILLI: Non ezkutatuko naiz? Non ezkutatzen ahal naiz?

ILARGI: Sartu hemen. Sartu nirekin.

WILLI: Hor? Eta bustitzen bada? *(Lehergailua seinalatuz)*
Eta hondatzen bada?

ILARGI: Nola bustiko da hemen!

WILLI *(urduri):* Ez dakit. Ez dakit.

ILARGI: Leherketarekin bainera hegan atera, eta lurralde hobe batera joanen al gara elkarrekin!

WILLI *(lasaituz):* Ez dakit. Ez dakit.

(WILLI baineran sartzen da.)

ILARGI: Eman muxu.

(Muxu ematen dio. Musika gero eta ozenago.)

WILLI: Badatoz. Badatoz.

ILARGI: Eman muxu.

WILLI: Bertze bat?

ILARGI: Zergatik ez?

(Muxu ematen dio.)

WILLI (*argizaiola seinalatuz*): Sua ez dut itzali. Itzaliko dut?

ILARGI: Ez. Argia behar dugu.

(Musika ozenago. WILLI eta ILARGI bainera barrenean ezkututzen dira. Musika are eta ozenago. Bat-batean, ahulduz, desagertzen hasten da. Musika apaltzen da. Isilunea. WILLI burua agertzen du.)

WILLI: Nora joan dire? Nondik? (*Isilunea*) Ei! Ei!

ILARGI: Zer?

WILLI: Nora joan dire? Nondik?

ILARGI: Ez dakit. (*Burua agertuz*) Eman muxu!

WILLI: Bertze bide bat hartuko zuten?

ILARGI: Gelditu nirekin. Hemen.

WILLI: Baina zer bide?

ILARGI: Etorri nirekin adarrak biltzera. Elurra ariko du berriz.

WILLI: Hemendik itzuliko dire bihar.

ILARGI: Hori da, bihar. Bihar ariko du elurra.

WILLI: Hemen itxarongo dut.

ILARGI: Eta urak handituko dire.

WILLI: Ez dut bertze aukerarik. Hemen itxarongo ditut.

ILARGI: Bai, Willi. Hemen, nirekin.

WILLI: Bai. Hemen.

ILARGI: Hemen izanen gara zoriontsuen.

WILLI: Hemen geldituko naiz.

ILARGI: Eman muxu.

WILLI: Elurra egin arte.

ILARGI: Emateko muxu!

WILLI: Elurra urtu arte.

(WILLI baineran ezkututzen da.)

ILARGI: Eta nire muxua?

(ILARGI ere baineran ezkututzen da.)

AMAIERA

Lur azpikoak

Gaizka Sarasola

Testu honek 2013ko Cafe Bar Bilbao antzerki laburreko gidoi lehiaketan saritua izan zen.

(Taberna bat iluntasunean. Agure bat sartzen da kanpoko atetik, MARTIN. Meatzarien kasko zahar bat du buruan, eta kopetako linterna piztuta. Euritarako arropak ditu soinean, eta aterkia eskuan. Txistu egiten ari da. Txistu luze eta ahula.)

MARTIN: Uuuuuuiiiii... Uuuuuuuuuiiiiiiiiiiii...

(Martinen atzetik, adin bertsuko beste bi lagun datoz: PEDRO eta LUCAS. Haiek ere meatzarien kaskoarekin, buruko argia piztuta, eta euritarako arropekin.)

MARTIN: Uuuuuuiiiiiiii... *(Ahots apalez)* Luciano! Psssst! Luciano! Uuuuuuiiiiiiii... Ei! Luciano! Uuuuuuiiiii...

(MARTINEK atzera begiratzen du. Lagunak atzetik dituela konturatzean, lasaitua hartzen du. Txistuka, aurrera jarraitzen du.)

MARTIN: Uuuuuuiiiiiiii...

PEDRO *(haserre):* Martin! Zer ari zara, txistuka?

MARTIN: Lapurrak garelakoan eskopetarekin tiro egin ez diezagun.

PEDRO: Etortzekoak garela badaki eta!

MARTIN: Berdin du. Badaezpada ere. Txistua aditzean, la-saitua hartuko du. Non ikusi da lapurrak etxeetara txistuka sartzen?

PEDRO: Sartu, beharbada ez, baina bat baino gehiago atearako zen etxeren batetik, pozik eta lasai, txistuka.

MARTIN: Edo ziztu bizian!

(Berriz ere txistuka.)

PEDRO: Joder!

MARTIN: Uuuuiiiii... Lucianooooo... Uuuuiiiii...

(Hirurak mahai baten ingurura iristen dira. Ondoa, aterki eta txamarrak uzten dituzte. LUCAS, lasai, aulki bat hartu, eta mahaiaren bueltan esertzen da. Beste biek, urduri, mahaiaren inguruan bueltak jarraitzen dute.)

LUCIANO: Gabon!

(LUCIANO azaltzen da, eskuargi eder batekin. Beste eskuan, kea darion pitxer bat dakar. Tabernako nagusia da. Edadetua hura ere. Maingu egiten du.)

MARTIN (*erdi izuturik*): Kostatu zaizu, Luciano! Lotan?

LUCIANO: Argirik gabe, kafetera ez da martxan jartzerik. Sukaldean nintzen, eltzean kafea egiten.

PEDRO: ¿Has oído, Lucas? Café de puchero.

LUCAS: Bueno. (*Tabakoa atera, eta zigarroa prestatzen hasten da*).

LUCIANO: Zer giro, kanpoan?

MARTIN: Ez da sumatzen barruan? Inoiz ere horrelako ekaitzik bizi gabe!

LUCIANO: Tira, tira... Inoiz, inoiz... (*Kafea mahaian utzi, eta katilu eta edalontzien bila hurbiltzen da barrara*) Gure adinean horrelakorik erratera ausartzea ere!

MARTIN: Bueno... Aspaldian ez.

(*MARTIN ere barrara hurbiltzen da. Kartak, mahaitapiza eta tantoak hartu, eta mahaian prestatzen ditu, jokorako.*)

PEDRO: Normala argia joatea. Eta ez bihar goizera arte moldatzerik espero! Giro honekin ez da lan egiterik!

MARTIN (*atsekabeturik*): Eta partidaren erdian! Luzapean egonen dira orain.

PEDRO: Irrati txiki hau ekarri dut. (*Irrati bat ateratzen du poltsiko batetik*) Baina ez dut pilarik! Luciano! Pilarik baduzu?

(*LUCIANO mahaira hurbiltzen da, katiluak hartuta. Mahaiaren erdian uzten du argia.*)

LUCIANO: Ez dakit. Ez dut uste... Baina pikutara irratia, eta pikutara futbola! Kafea badugu... eta kartak. Banatu. Martin! Fariasa? (*Farias kaxa luzatuta*).

(MARTINEk puru bat hartzen du. LUCAS beretik erretzen ari da. LUCIANOK eta PEDROK ez dute erretzen. MARTINEk purua pizten du. PEDROK kartak banatzen ditu.)

LUCIANO: Mus.

LUCAS: Allá!

MARTIN: Eta?... *(Kaskoko argiarekin kartak ezin ongi argituz. Kartak ezin ikusiz. Deseroso)* Mus!

(Laurak ere kartak ongi ikusteko zailtasunez.)

PEDRO: Hasi!

LUCIANO: Ba.

LUCAS: Ba.

MARTIN: Paso.

PEDRO: Enbido!

LUCIANO: Tira. Ba.

LUCAS: Ba.

MARTIN: Enbido!

PEDRO: Eta?... Lucas?

(LUCASEk buruarekin ezetz.)

LUCIANO: Pareak.

LUCAS: Llevo.

MARTIN (*ezin ikusiz*): Ez dakit... Ze kristo! Ez dut ikusten!
Argi ziztrin honekin! Eta nire bistarekin.

PEDRO: Bi seiko, Martin!

MARTIN (*haserre*): Kauen la ostia, ez begiratu!

PEDRO: Joder! (*Eskuekin keinu eginez*) Horrela jartzen dituzu eta!... Denen bistara!

MARTIN: Ez dut ikusten bestela!... Bueno. Bestela ere ez dut ikusten. Bizi guzian ilunpetan lanean, eta, azkenerako, erdi itsu.

(*LUCAS eztulka hasten da.*)

LUCIANO: Betaurrekoak graduatu beharko dituzu.

MARTIN: Ba! Gaurgero...

(*Isilunea. Lau lagunak elkarri begira.*)

LUCIANO: Eta?

PEDRO: Pareetara ere, enbido!

(*LUCIANOK buruarekin ezetz.*)

LUCIANO: Jokorik ez.

LUCAS: Ez.

(MARTIN berriro ere kartak ezin ikusiz. Zalantzan. Etsiturik, PEDROri begiratzen dio, galdezka bezala.)

PEDRO: Ez duzu jokorik, Martin!

MARTIN: Kauen la ostia! Ez begiratzeko! *(Haserreturik altxatu, eta kartak mahaira botatzen ditu)* Musa eta alukeriak! Horrela ezin da jokatu! Pedrok kartak ikusten dizkit, eta nik ez dut kartarik ikusten! *(Lasaituz)* Pilak, Luciano. Ekarri pilak, irratian partida entzuteko.

(PEDROk kartak biltzen ditu. LUCIANO, zutitu, eta barraren atzean ezkutatzen da. MARTIN, lasaitu, eta berriro esertzen da. Kafea edaten du.)

MARTIN: Bua! Gaztaina ura.

PEDRO: Zer?

MARTIN: Kafea! Gaztaina ura bezalakoa. Substantziarik gabeko kafea.

PEDRO *(tragoxka bat hartuz):* Bai. Txarra.

(PEDRO barrara joaten da, pattarra hartzera. LUCAS eta MARTIN, zigarroa eta purua ahoan, elkarri begirara. PEDRO pattarrarekin itzultzen da, eta pixka bat zerbitzatzen du lau lagunentzako kafeetan. LUCIANO agertzen da.)

LUCIANO: Ez dut pilarik etxean. Partidarik ez!

(LUCIANO ere esertzen da. Lau lagunak, berriro ere, mahaiaren bueltan.)

PEDRO: Lastima.

LUCIANO: Bueno.

MARTIN: Tira.

LUCAS: Ba!

(*Isilunea.*)

MARTIN: Ba.

(*Isilunea. Lau lagunak kafea edaten.*)

PEDRO (*LUCIANOri*): Eta?

LUCIANO: Zer?

PEDRO: Hobeki?

LUCIANO: Zer?

PEDRO: Kafea.

MARTIN: Bai.

LUCAS: Bueno.

(*Isilunea.*)

LUCIANO: A! Kafea. (*Isilunea*) Ona dago?

LUCAS: Bai.

MARTIN: Ba.

(Isilunea.)

PEDRO: Oso ona.

LUCIANO: Tira, tira... *(Isilunea)* Telediaroan eman dute Txinakoa.

PEDRO: Partidaren atsedendian. Ikusi dut, bai.

MARTIN: Hamar egun meatzean harrapaturik. Latza.

PEDRO: Joder.

(Isilunea.)

LUCIANO: Guk ere ez genuen istripu gutxi izan!

MARTIN: Lucasek batez ere.

PEDRO: ¡Eso, Lucas! ¿Cuánto tiempo estuviste atrapado la última vez?

LUCAS (*pentsakor*): Sesenta y ocho horas.

LUCIANO: Istripu hartan hil zen Benito. ¿No, Lucas?

(LUCASEK buruarekin baiezkoa.)

PEDRO: Goian bego!

LUCIANO: Meatzean lurperatua.

(Isilunea.)

PEDRO: Onik aterako dituzte azkenean.

MARTIN: Txinatarrak?

PEDRO: Bai.

MARTIN: Eta nola dakizu onik aterako direla gizagaixo horiek?

LUCIANO: Meatzetik ez da inor onik ateratzen. Bizirik igual bai, baina onik ez.

(LUCAS eztulka.)

PEDRO: Telebistan erran dute. Ba omen daude kamerak haiek noiz lurrazaleratuko zain.

MARTIN: Kamerak?

PEDRO: Bai. Mundu guzitik.

LUCIANO: Ikuskizun bihurtuko dute, azkenean.

MARTIN: Edo pelikula bat egin!

PEDRO: Hori! Pelikula bat egingen dute, azkenean!

LUCIANO: Zuek bai pelikulak!

MARTIN: Antzerkia, bestela.

LUCIANO: Asperturik bizi behar du inork meatzarien teatroa ikustera joateko!

(Kartak eskuetan hartu, eta bakar-jokoan hasten da LUCAS.)

PEDRO: Ezetz! Antzerkirik ez! Pelikula eginen dutela! Amerikanoek! Ikusiko duzue. Haien luxu eta fantasia! Zenbat argi, zenbat musika, zenbat eztanda... Bi lagun arriskuan; bat hil, bestea salbatu, eta denak palomitak jaten!

MARTIN: “Txino” batenak egin du, beraz! Ja!

PEDRO: Zenbat pelikula istripuekin, suteekin, lurrikarekin, gerrekin...

MARTIN: Gerrakoak dira ederrenak.

LUCAS: ¿Tú que sabes?

(Isilunea. MARTINEk, purua itzali, eta hautsontzian uzten du.)

MARTIN: Komunera noa.

(Mahai gaineko esku-argia hartu, eta komunera abiatzen da.)

PEDRO: Zertarako horrenbeste argi?

MARTIN: Pareak ere ez baditut ikusten, bakarra nola?

PEDRO *(irri bortxatua):* Ja, ja!

(LUCAS, makurtu, eta mahai azpian zerbait bilatzen hasten da.)

PEDRO: Zer falta duzu, Lucas?

LUCAS: Erregea. Basto.

PEDRO (*bera ere makurtuz*): Martinek botako zuen, hase-rretu denean.

(PEDRO eta LUCAS makurturik, mahaiaren bueltan karta bila. LUCIANO ilunpean gelditzen da, eserita.)

LUCIANO: Hemen ere egin zuten pelikula bat. (*PEDRO eta LUCAS LUCIANORI begira. Beren buruko argiek haren aurpegia argitzen dute*) Duela urte asko. Bueno... ez hainbeste ere. Dokumentala. “Ama Lur”. Egun batez. Neguan. Nire esaldi bat jarri zuten. Irudia ez dakit nirea ote zen. Ez dut gogoratzen. Esaldia, bai. “¡Si no sale nada mejor, aquí seguiremos!”. Eta denak okerrera egin zuen. Andreak gurasoen herrira alde egin zuen, seme-alabak berarekin eramanez, erretiroa hartu aurretik mina hartu, eta ezin meatzean lanean jarraitu, eta sator zulo hartatik taberna zulo honetara... betiko. Eta hemen ezin erretirorik hartu. “Si no sale nada mejor...”. Todo peor! (*Aulkitik altxatuz*) Ea pilarik aurkitzen dudan!

(LUCIANO barraren atzean desagertzen da.)

PEDRO (*oihuka*): Eta argia?

(PEDROK eta LUCASEK karta bilatzeari berrekiten diote. MARTIN agertzen da, eta, beste biak lurrean

belauniko ikusita, esku-argia mahaian utzi, eta lagunen antzera ibiltzen hasten da, jolas moduan.)

MARTIN: Hau dugu meatzarien martxa, beraz? Horrela egiten dugu orain martxa Madrilera!

PEDRO: Zer diozu?

MARTIN: Martxa! Meatzarien martxa! Erreguka. Lana emateko erreguka. Kauen la sota de bastos! Erregu-tezari borroka egitea deitzen zaio orain!

PEDRO: Txota ez. Erregea.

MARTIN: Nola?

PEDRO (*zutituz*): Ezer ere ez!

(PEDRO esertzen da. LUCAS berriz ere eztulka hasi, eta MARTIN hurbiltzen zaio, altxatzen laguntzera. LUCAS ere esertzen da. Lasaitzean, tabakoa hartu, eta beste zigarro bat prestatzen hasten da.)

MARTIN: Madrilera bidean ditugu seme-alabak, esklaboen moduan lanean jarraitu ahal izateko erreguka. Eta gu begira, lur azpiko iluntasunak itsuturiko begiokin.

PEDRO: Hainbeste ordu utzi ditugu lurpean. Hainbeste lagun gelditu dira lurpean.

MARTIN: Benito.

PEDRO: Benito eta... (*Hunkituta*) Aita Gurea gehiegi.

(LUCIANO azaltzen da, barratik, linterna txiki batekin.)

LUCIANO: Ez dut pilarik. Denean begiratu dut eta ez dut pilarik.

MARTIN: Lehenago ere ez.

PEDRO (*hunkituta, oraindik*): Joder!

LUCIANO (*hiru lagunei begira*): Zer?

MARTIN: Meatzean hildako lagunei buruz ari ginen.

LUCIANO: Benito, berriz?

PEDRO: Goian bego.

MARTIN: Goian, bai! Goiko zeruan nahi ditugu, baina zuloa sartzen ditugu gorpuak!

LUCIANO: Satorrek ateratzeko egiten dute zuloa, eta guk, sartzeko.

PEDRO: Elkarren kontra beti.

MARTIN: Nekazariak aitzurrarekin satorrari burua lehertu arte!

(*Isilunea. LUCASEk zigarroa pizten du.*)

LUCAS: Benito era un esquírol. Ese sí que era un miserable topo.

(Isilunea.)

LUCIANO: Kafea? *(Zutituz)* Kafe gehiago eginen dut?

MARTIN: Ez. Kaferik ez.

PEDRO: Niregatik ere ez, baina... Pattarra, igual? E? Hori bai. Topa egin dezagun! *(Pattarra banatzen du guzientzat)* Guregatik!

(Lau lagunek, topa egin, eta pattarra edaten dute.)

PEDRO: Beste bat!

(PEDROK edalontziak betetzen ditu.)

MARTIN: Guregatik eta gure ondorengoengatik! Martxan Madrilera doazenengatik! Meatzariongatik!

(Berriz ere pattarretik edaten dute.)

PEDRO: Eta txinatarrengatik. Onik ez, baina bizirik atera daitezela.

(PEDROK edalontziak betetzen ditu berriz ere.)

MARTIN: Eta pelikulengatik!

(Hirugarren tragoa jarraian.)

PEDRO: Hori da! Pelikula egin dezatela amerikanoek.

(MARTINEK, zutitu, eta ondoan dauden aterkietako bat hartzen du, fusila bailitzan.)

MARTIN: Gerrako pelikulak. Gerrei buruzko pelikulengatik. Munduko hoberenak!

(Zelatan dabilen soldadua balitz bezala mugitzen da MARTIN tabernan. LUCIANOK barrara eramaten du pattarra, PEDROren begiradapean. LUCAS komunera joateko zutitzen da.)

LUCAS: Tú y tus batallitas, Martin. Tú y tus batallitas. En el pueblo, allá en Huelva, vivía Anselmo. Lo mandaron con la División Azul a luchar contra los rusos. Él, que había estado en la cárcel por rojo, luchando contra los rusos. Y volvió. Sobrevivió. Y siempre que podía contaba lo que había sido la guerra. Cuerpos escondidos en la nieve. Cada uno en su madriguera. Muertos de frío. Muertos de miedo. Esperando. Esperando a salir. Esperando cuándo salir sin querer salir. Y, luego, cuerpos entumecidos, torpes, tropezándose, cayéndose, sin saber disparar, sin saber a qué disparar, cómo disparar, disparos fallidos, muertes involuntarias... No hay nada más mediocre que ver luchar a personas que no saben luchar, lastimándose sin darse cuenta de cómo lo han hecho. Nada de épica. Solo miedo, dolor y silencio. Un poco de ruido, y un mucho de silencio. Eso decía Anselmo. Y aquí seguimos hoy día, rememorando batallas, jugando a soldaditos de plomo, recordando no sé qué guerras para celebrar no sé qué paz. Y así seguiremos.¹

1 Zu beti gerra kontuekin, Martin. Zu beti gerra kontuekin. Nire herrian bizi zen Anselmo, Huelvan. Dibisio Urdinarekin bidali zuten errusiarren aurka borrokatzera. Nor bidali behar errusiarren aurka, eta bera, gorria zelakoan kartzelan ibilitakoa. Itzuli zen. Bizirautea lortu zuen. Eta ahal zuen guztietan kontatzen zuen gerran bizi izandakoa. Elurretan ezkutatutako gorputzak. Bakoitza bere gordelekuan. Hotzak hiltzen. Beldurrak akabatzen. Itxaroten. Ateratzeko itxaroten. Atera nahi ez, eta noiz aterako itxaroten.

(LUCAS komunera joaten da. MARTINEk bere ibilbi-deari berrekiten dio. Aterkia fusila balitz bezala harturik, zelatan, eta txistuka, oraingoan ere.)

MARTIN: Uuuuiiiii... Uuuuiiiii...

PEDRO: Joder.

MARTIN: Uuuuuuiiiii...

PEDRO: Arraro dago Lucas!

LUCIANO: Arraro? Ez uste. Beti izan da horrelakoa. Zurruna.

MARTIN: Uuuuuuiiiii...

PEDRO: Joder, Martin!

MARTIN: Pelikularen batean ikusiko nuen. Soldaduak iluntasunean txistuka, lagunek hara tiro ez egiteko.

PEDRO: Etsaiek sumatuz gero, botako zuten!

MARTIN: Hori bai.

Eta, ondoren, gorputz sorgortuak, baldar, estropezuka, erortzen, tiro egiten jakin gabe, zeri tiro egin jakin gabe, nola tiro egin, tiro erratuak, us-tekabeko heriotzak... Ikuskizun kaskarrik bada, borrokatzen ez dakiena borrokan ikustea da; oharkabeen elkarri min eginez. Epikarik ez. Izua, oinazea eta isiltasuna. Apur batean zarata, eta erabateko isiltasuna. Hala zioen Anselmok. Eta, egun, gudak gogora ekartzen jarraitzen dugu, berunezko soldaduekin jolasean bezala, auskalo zer gerra oroituz auskalo zer bake ospatzeko. Eta horretan gabiltza.

LUCIANO: Lagunek non gauden jakitea ona da. Etsaiek jakitea, ez. Baina, okerrena, non gauden inork ere ez jakitea izanen da. Nonbait ba ote gauden jakitea.

MARTIN (*soldadutara jolasteari utziz*): Benito bezala. (*Mahaira hurbilduz*) Zuek uste al duzue Lucasek...?

LUCIANO: Ez dakit.

MARTIN: Arraroa izan zen. Arraroa gorpurik ez aurkitzea.

LUCIANO: Lurra gainera erortzen zaigunean ez dago aterabiderik.

PEDRO: Aspaldiko kontuak dira, gainera.

MARTIN: Horregatik. Aspaldikoak direlako. Galdetuko bagenio?

LUCIANO: Lagunak ez dira guk jakin nahi duguna kontatzeko, berek isildu nahi dutena errespetatzeko baizik.

MARTIN: Bai, baina...

LUCIANO (*haserreturik zutituz*): Aski da, Martin! Aski da! Garai zailak ziren.

PEDRO: Gogoratzen dut, bai. Borroka garaiak.

MARTIN: Ordukoak bai borrokak!

PEDRO: Beti pentsatzen dugu gureak direla borrokarik gogorrenak.

(Isilunea.)

MARTIN: Lucas hain zen sutsua, eta Benito... Benito, berriz, beti hain...

LUCIANO: Aski dela, Martin! *(Isilunea)* Zer nahi duzu? Zer galdetzen duzu? Lucas gure artean dago. Laguna dugu. Eta aspaldian isildu ziren Benitoren aldeko kanpai-hotsak. Istripua izan zen; eta horrela bedi. Ez dakigu deus ere. Eta ez jakitea hobe. Lau egun gertzen zaizkigu lurrazalean. Lau egun, mus partida gutxi batzuk, beste futbol mundial bat gehien jota, puru bat, eta kafea. Edaterakoan azkena dela jakinen ez dugun azken kafea. Nahiko mikatza, berez. Pasaeran gaude gainazalean, baina lur azpikoak gara gu ere; eta lurpean jazotzen dena lurpean gordetzea hobe. Sator lurrek ere ez dute kaltea besterik ekartzen. Kaltea baratzeetan, kaltea belardietan... *(Komun aldera abiatuz)* Denbora gehiegi darama komunean.

(LUCIANO komunera joaten da. MARTINEk ezpainetan hartzen du hautsontzian zegoen purua. Isiltasuna.)

PEDRO: Itzalita dago.

MARTIN: Horrela hobeki.

PEDRO: Negua luze doa.

MARTIN: Betiko antzera.

(Isiltasuna.)

PEDRO: Lehengoan bilobekin hirian izan ginela kontatu nizun?

MARTIN: Ez.

PEDRO: Barraketan ibiltzen.

MARTIN: Eta?

PEDRO: Zerean ibili ginen... “El túnel del terror”!

MARTIN: Ongi.

PEDRO: Meatzean nintzela iruditu zitzaidan momentu batean. Horrek eman zidan beldurrik handiena.

(LUCIANO agertzen da, komunetik bueltan.)

LUCIANO: Hilda dago!

MARTIN: Lucas?

LUCIANO: Bai. Komunean aurkitu dut zerraldo.

(Argiak pizten dira.)

PEDRO: Azkenean!

(Isiltasuna. LUCIANOK, MARTINEK eta PEDROK linterna eta esku-argi guziak itzaltzen dituzte.)

PEDRO: Lucas hilda?

LUCIANO: Bai.

PEDRO: Norabait deitu beharko dugu, bada!

MARTIN: Nora? Nori? Zertarako? Etxean ez du inor zain.
Bakarrik dago.

LUCIANO: Zegoen.

PEDRO: Medikuari bederen!

LUCIANO: Oraindik ez. Gau gogorra izan da. Utz diezaio-
gun jendeari deskantsatzen. Utzi lotan. Egunsentian,
Pedro!

PEDRO: Eta zer eginen dugu bitartean?

LUCIANO: Kafea eginen dut.

(LUCIANO barrara joaten da.)

PEDRO: Kafeterakoa, Luciano! *(Isilunea)* Eta piztu irratia!

LUCIANO: Zertarako? Seguru penaltietan galdu dutela!

MARTIN: Ez piztu irratirik, ez. Eta itzali argia ere! Begiak
ohituagoak ditut iluntasunera.

PEDRO: Sator begiak, Martin!

MARTIN: Metamorfosia. Metamorfosia izanen da.

LUCIANO *(barratik):* Kafkaren aita ere meatzaria izanen
zen, agian! Hortik ipuinak!

MARTIN: Zenbat ipuin. Zenbat egi.

(LUCIANOK argia itzaltzen du.)

AMAIERA

Talaka

Gaizka Sarasola

TALAKA antzezlan 2015eko abenduaren 5ean estreinatu zuen Mairu Antzerki Tailerrak, Lesakako Keinu Leihoak egitarauaren barruan. Oholtzan Gaizka Sarasola egon zen, musika Xabi Erkiziak egin zuen.

talaka: (*bele-izugarri*) Lau zutoinen bidez lurrean kokatutako egurrezko hesola luzea. Goialdean tresna bat, zeina lau angelutako egitura bat, helize moduan lau hegal handi, kirtenik gabeko sega akoplatuta daraman langa, eta bi zurez eutsitako sare txiki batez osaturik dagoen. Garai batean soroetan beleak eta gainerako hegaztiak uxatzeko erabilia.

*Donostiako San Telmo museoan 1916an Lekarozeko Iturraldea baserritik jasotako tresnaren deskribapena.

ILUNTASUNA

(Giro iluna. Agertokiaren erdian, Talaka, garai bateko txori-izugarrien eraldaketa erraldoia, indar naturalen ordeztuak mugiarazten duena; bilakaerarik gabe biraka ibiltzera kondenaturiko PERTSONAIAK. Kate luze batek, PERTSONAIA Talakara lotzen du. Tramankuluaren oinean, balde herdoildu bat. Bazter batean, aitzur zahar bat.

PERTSONAIA aulki batean eserita dago. Aulkiaren ondoan, esekitoki bat. Handik zintzilik, bonbilla bat eta lanerako mantala.

PERTSONAIA aulkitik altxatzen da, poliki, ingurura begiraturaz, usainduz, sentituz... Zerura begiratzen du.)

PERTSONAIA: Kaka! Kauen la puta! Kauen la puta! Kaka! Neskaren bat niretzat biluztuko balitz! Argazkiak ikusi beharko ditut; haurtzaroko argazkiak. Beti haurtzaroko argazkiak. Hondartzak, kaiak, ontziak, itsasoa... Orain, itsasoa zabortege bihurtu dute! Eta ni zabortege baterako lanean. Lanean edo...

(Zerura begirada.)

KAUEN LA PUTA! Zenbat denbora kolperik jo gabe? Bera falta denez geroztik. Luze. Luze, bai. Denbora

luze joaten da lanean aritu gabe. Lanean ere bai. Jen-
dea urduri egonen da. Popatik hartzera!

Eta bera? Bera triste egonen da ni gabe. Maitasunaren
alde txarra da hori. Azkenean, malko batekin buka-
tzen da dena.

(Zerura begirada.)

Kaka! Kaka!

*(PERTSONAIA aulkian jartzen da. Erabateko ilunta-
suna nagusitu behar dela dirudienean, aulkitik al-
txatzen da berriz ere pertsonaia. Ingurura, jendeari
begira jartzen da, poliki-poliki, ikusleen artean da-
goen pertsona bakoitza azertu nahiko balu bezala.
Amaitutakoan, isilean lehen bezala, aulkian jartzen
da. Bere argia pizten du. Orain, bai; iluntasuna gai-
lentzen da inguruan.)*

AHOTSA OFFEAN: Hegoafrikako poliziak 34 meatzari hil
ditu tiroz, protestaldi batean. Istiluak ostiralean hasi
ziren, 3.000 meatzari inguruk beren lanpostuak utzi
zituztenean soldatak igotzea aldarrikatzeko.

LANA

*(Argia. PERTSONAIA, bere argia itzali, mantala jantzi
eta Talakaren oinetan kokatzen da, zaldiko-maldiko
bateko panpina bezala.)*

PERTSONAIA: Azkenean! Probetxuzko pertsona bat! Miraria, “Talaka Birakaria” eta zakurraren putza! Lanean berriz ere luze joanen da denbora. Baina hau da gure betebeharra. Gora gu eta gutarrak eta zakurraren putza; nahiago dut denbora itsasoko argazkiak ikusten pasa. Haren argazkiak; hain zen polita...

Beleak bai, bele gaiztoak. Hemen zertarako, eta beleak uxatzeko. Beleak bai, bele gaiztoak... Beleak bai, zabortegietan sartu eta dena lapurtu, kableak moku-katu eta makinak hondatu. Beleak bai, zabortegien etsai... Edgar Allan Poek maite zuen belea. Sasikumea! Alfred Hitchcockek ez. Biba Alfredo!

Ni... ni... ni eta... ni... bera gabe, ni... Bertze bat banu, sikiera, solasteko... galdetzeko... Zenbat pisatzen duzu?... Zein da zure libururik maitatuena?... Zenbat denbora irauten duzu arnasarik hartu gabe?... Zenbat pisatu zenuen jaiotzean?... Zenbat pisu galtzen duzu kaka egiterakoan?... Eta... nor kondenatzen duzu?... Edo... zer exijitzen duzu?... Non gordeko dituzu erabilitako mukizapiak?... Nik... nik... ekin lanari! Miraria, “Talaka Birakaria” eta zakurraren putza! Beharrezkoa naiz zikloa osatzeko. Zabortegitik birziklatzera! Ez dakit nola, baina, zabortegiko zaborra hartu, eta, niri esker, zubiak egiten dituzte zabor horrekin, eta abioiak eta zapatak eta baldeak eta aitzurrak, aizkorak, zartaginak, lapikoak, janaria eta... Kauen la puta... Kauen la puta! Noski! Zakurraren putza! Zaborra hartu, eta guri ematen diguten janari zaborra egin. Zaborretik zaborrera! Elikadura katea! Hautsi katea, kauen la puta! Hautsi katea!

INDARRA

PERTSONAIA: Hautsi katea!

ETSIPENA

PERTSONAIA: Ezin dut. Alfredo horren eragina izanen da. Alfredo edo Pelé. Alfredo eta Pelé. Pelé edo bele... Baina Alfredo nor da?... Alfredo Di Stéfano izanen da, futbol jokalaria. Futbol puta hori orain ere... Di Stéfano eta Pelé... eta Maradona? Maradonak detergente-hautsak sartzen zituen sudurretik! Azidoak eta baseak. Erantzi ditzagun arropak!... Ez da bertze inor biluztuko?... Jendeak ez du egutegiz kanpoko festarik maite... Berak... berak gorputz polita zuen... azal leuna... Ez zuen barrengo arroparik erabiltzen... Horregatik... euria egitean... soineko argia erabat bustitzean... gorputzaren zuritasun osoa nabaritzen zitzaion... bere beltzune ttikiekin... ilargia bezala. Maitagarria.

(PERTSONAIA, mantala kendu, eta aulkian jartzen da. Bere argia pizten du. Inguruan, iluna.)

OINAZEA

AHOTSA OFFEAN: Poliziak, makilaz eta aizkoraz armaturik manifestazioan zihoazen milaka meatzariren aurka tiro egin zuen, ostegunean. Tiroketen ondorioz, 34 meatzari hil ziren. Johannesburgotik 100 km-tara dagoen platino meatzeko langileak dira, marikana hirian.

(Iluntasunean, PERTSONAIA aulkitik altxatu, eta ikusleei zuzentzen zaie lehenengo aldiz.)

PERTSONAIA: Triste. Zenbat jendeak begiak triste. Politik. Baina tristeak. Eta bakarrik. Orain. Hemen. Eta han. Eta haratago ere bai. Zenbat jendeak begiak triste.

(Ingurura begirada. PERTSONAIA Talakaren oinean dagoen baldera igotzen da. Talakara lotzen duen kateaz inguratzen du bere lepoa. Salto egiten du, eta lurrera erori. Suizidaren pantomima. Etsiturik, aulkian jartzen da PERTSONAIA.)

AHOTSA OFFEAN: Grebak indarrean jarraitzen du hegoafrikan, Marikanako meatzetan. Goizean, ateak itxirik zeuden. Poliziak meatzariak hildako lekuan elkartu dira langile multzoak. Lanera itzuli nahi zutenak ez dira piketei aurre egiten ausartu. Lehengo astean, sei meatzari, bi polizia eta segurtasuneko bi langile hil ziren piketeen eskuetan.

LANA

(Argia itzali, mantala jantzi, eta, poliki-poliki, panna zaldiko-maldikoan, prest.)

PERTSONAIA: Kakahueteak, kauen la puta! Kakahueteak nahi ditut, eta ez janari zaborra! Hori da! Kakahuetea! Bira bakoitzeko kakahuete bat. Aditu duzue? Buelta bat, kakahuete bat! Buelta bat, kakahuete bat!... Berari txipiroiak gustatzen zitzaizkion. Txipiroiak? Itsasoko galipot zikinarekin? ... Hori tinta zela... Bai, zera! Galipot zikina!... Eta Pelék? Zer janen du Pelék? Ez, Pelé ez, bele. Hori da! BELE; zabortegien etsai!... Zakurraren putza beleak, galipotez zikindutako kaioak!... Baina ikusi... ikusi makusi... ez dut inoiz belerik ikusi... Noski! Nola ikusiko ditut, denak uxatzen baditut! Miraria, “Talaka Birakaria” eta zakurraren putza!

Agian... agian une batez geldituz gero, ikusiko dut baten bat.

ESPEROA

PERTSONAIA: Esperoan denbora luze joaten da... Lanean ere denbora luze joaten da. Lanean aritu gabe ere bai. Denbora. Denbora. Iraganean, harea sartzen zuten ontzietan, denbora ezagutzeko. Baina... baina Groenlandian ez dago harearik! Han dena izotza da! Orduan, Groenlandian ez dago denborarik? Eta zer eginen du hango jendeak? Inuitak. Hori da! Inuitek ez

dute denborarik! Inuitek ez dute denborarik begiak irekitzeko eta ez dute denborarik begiak ixteko ere. Horregatik, begiak erdi irekiak edo erdi itxiak dituzte beti!

Izotza denborarekin urtzen da. Denborarekin ez! Beroarekin!... Baina beroak denbora behar du izotza urtzeko. Nonbait irakurri nuen itsasoa galipot-salda bihurtu baino lehenago Groenlandia aldean bazeudela izotz zati handiak, denborarekin puskatu eta itsasora erortzen zirenak. Eta, azkenean, urtzen ziren. Iceberg izena zuten. ICEBERG! Izen polita erloju batentzat. Baina, horretarako, milaka eta milaka gau eta egun pasatu behar izaten ziren. Beraz, Groenlandian, hemen baino luzeagoa izanen da denbora. JA! Gizajoak inuitak! Lanean hemen baino denbora luzeagoz aritu beharko dira!... Lo egiteko ere denbora gehiago izanen dute. Inuit alu zikinak! Denbora luzeagoa bada, ametsak ere bai! Baina, ametsa luzeegi joanez gero, azkenean aspertuko dira! Norberaren ametsekin aspertzea baino gauza tristeagorik... JA! Gizajoak inuitak!

DANTZA

PERTSONAIA: Eta kakahuetea? E! Kakahuetea!

Zas... zas... zas... Ziztuka ziztada... Zas... zas... zas... Ziztada ziztuka zartada... Zas! Zartada zas eta zas zartailu-dantzan... Zartailu-dantzan piztiak dantzari dantzan dira ari... Bat eta bi, bat eta bi, dantzariak dantzari loredun kapeluekin... Kapeluak loreekin eta

koroak arantzekin... Eta bat eta bi, bat eta bi, eta zas!
Zartailua ziztuka eta dantzariak dantzari arantzazko
koroekin eta loredun kapeluekin... Bat eta bi ez eutsi
utzi niri zas!... Zas! Zas! Zas! Zapiak zarrast!... Utikan
zapia! Geure burua ezkutatzeko zapia! Gure aurpegia
garbitzeko zapia! Zapia zarrast! Erantzi ditzagun za-
piak!... Zapiak erantzi, baina pausoa ez ahantzi... Bat
eta bi... Pausoa ez ahantzi... Harriari lotuta, loturari lo-
tuta, tiobibo honi iltzatuta, kateari kateatuta... Eta bat
eta bi, bat eta bi... eta hiru?...

INDARRA

PERTSONAIA: Hautsi katea! Hautsi katea!

ETSIPENA

PERTSONAIA: Ezinezkoa da. Hori erraten dute. Batzuek
hori erraten dute. Baina zer dakite horiek! Batzuek
bertzeek errandakoa errepikatu bertzerik ez dute
egiten. Hitzak errepikatzen, hitzak errepikatzen, hi-
tzak errepikatzen loroak bezala. Loro batzuk dira!
Hori da! Loroak! Loroak!

Baina egiatan ezin badira hautsi? Orduan, nor-
bait haserretuko da. Kateak laburtuko dizkidate.
Orain, behintzat, katea nahiko luzea da. Lehenago ez.

Orduan, denbora guzian “Talakan” egon behar izaten ginen. Ipurdi besta! Ez da batere atsegina denbora guzian aurpegiaren aitzinean ipurdi bat edukitzea. Nik, hala ere, bera izaten nuen aitzinean. Ipurdi polita berea. Kauen la puta! Mundiala!... Ba! Azken finean, ipurdi politenak ere kaka usaina beti! A ze pagotxa! Zabortegiko kiratsaz gain, puzker eta kaka usainetan itoak!... Baina soluzioa bazuen horrek, kauen la puta! Gerritik beheiti erantzi, eta ipurditik bioleta-lorea sartu! Horrela, ikusmira polita eta usain gozoa. Lanear aritzeko giro positiboa! Noski! Hori izanen da ongizatea! Lankidearen ipurdia ikustea ipurtzulotik bioleta bat sartua duela!... Nire itxaropena... Lili bat... Lili bat ipurditik zintzilik... Izanen ote du arantzarik?... Lore bat, lore bi, ipurdietatik zintzilik...

(PERTSONAIA, mantala kendu, eta aulkian jartzen da. Beraren argia pizten da. Inguruan, iluna.)

ILUNTASUNA

AHOTSA OFFEAN: Hegoafrikarrek hildako meatzariak gogoratzen dituzten bitartean, istiluak gero eta ugariaoak dira. Hainbat ekitaldi antolatu dira poliziaren eta meatzarien arteko istiluetan hildako 44 lagunen omenez. Meatzariak, senideak, politikariek eta sindikatuetako jendeak parte hartu du. Abesti kristauak kantatu dituzte, zuluera eta xiloseraz, 18 milioi hegoafrikarrek hitz egiten dituzten hizkuntzetan.

(PERTSONAIA aulkitik altxatzen da. Ikusleei zuzentzen zaie, bigarren aldiz.)

PERTSONAIA: Zenbat jendek begiak triste, oraindik. Beti bezala. Bertze norbaitek ikusten ote du?... Bereziak bai, baina ez gara bata bertzeetatik hain desberdinak ere.

BILAKETA

(PERTSONAIA zerbaiten, norbaiten bila.)

PERTSONAIA: Bertze norbait. Bertze bat. Bertze bat behar dut. Bertze bat, ni bezalakoa. Edo gazteagoa. Ni zahartzen ari naiz; ez naiz lehenagokoa. Bertze bat behar dut esne-bideari laguntzeko. Gazteago bat esne-bideari laguntzeko! Hazi zurrustadarako! Hazia isurtzeko! Makila astintzeko! Astindu makila! Makila, abila, kiskila, inutila... zakila! Astindu zakila! Ni, gaztetan, ilargi beteko arratsetan, ilargiaren biluztasunean, mendirik garaienetara igo, biluztu, ilargiari begira etzan, eta... zaka! Zaka!... Eta kristoren hazi zurrustada isurtzen nuen zero aldera! Eta, horrela, nire haziarekin eta ni bezalako bertze batzuenarekin, esne-bidea osatu genuen. Gora esne-bidea! Gora esne-bidea! Baina orain ez naiz lehenagokoa. Gazte jendea behar dut, gorputz handiarekin, hazi zurrustada galanta izanen duena! Lagundu esne-bideari! Lagundu esne-bideari! Bertzela desagertuko da! Eta,

orduan, eguzkia eta ilargia eta lurra eta dena eroriko da! Gora esne-bidea! Gora esne-bidea!

(Zerurantz begirada.)

Kauen la puta!

OINAZEA

(Ingurura begirada.)

PERTSONAIA: Harresiak. Harresi zulatuak.

(Berriro, ingurura begirada.)

Harresi gehiago. Zulatutako harresiz beteriko eremu zabala. Zenbat nahigabe. Zenbat samin. Nork zulatu ote ditu hainbertze harresi? Nola?... Edozeinek. Oharkabean. Beti badago harri solteren bat. Zuloetatik haize hotza sartzen da. Ni ere hotzak izaten naiz. Batzuetan. Ez beti.

(PERTSONAIA aulkian jartzen da.)

AHOTSA OFFEAN: 2.000 meatzarik martxa bat hasi dute Marikanako meatzeetan, makilaz eta lantzaz armaturik. Lonmin britainiar konpainiako langileak polizia ugariz inguraturik abiatu dira enpresak marikanatik 5 km-ra duen kareteko meatzera, hango lanak

geldiarazteko asmoz. Enpresako arduradunen esane-
tan, langileen % 4,2 soilik joan da lanera.

LANIK EZ

(*PERTSONAIA aulkitik altxatzen da.*)

PERTSONAIA: Lanik ez da? E! Eta lana? Non da lana? Eta jendea? Non da jendea? Haserre? Atsekabeturik? Triste? A, depresioak jota... Ba hartu pilulak, kauen la puta!

Jendea bere trintxeretan izanen da; trintxeretan ezkutaturik, ateratzeko beldurrez. Soldadu kakatiak! Trintxeretan, soldadu kakatiak pilatzen dira. Hotzak akabatzen, odoletan blai eta ateratzeko beldurrez. Banaka-banaka, azkenean, denak hiltzen dira trintxeretan. Hildakoen gorpuak lurrean pilatzen dira... eta beren lagunek zanpatzen dituzte! Odolkiak eta tripakiak trintxeretan! Eta muinak! Trintxerak nazkagarriak dira; edo poetikoak. Stanley Kubrickek poesia egin zuen trintxeretan. PATHS OF GLORY! Sasikumea, Stanley Kubrick! Bere kamerarekin lasterka munduko trintxera guziak zeharkatuz. Ama putaren semea!

Nola aurkitu zituen hainbertze trintxera?... Edonon daude trintxerak. Jende guzia da trintxeretan sartua. Mundua guda zelai bat da! TA-TA-TA-TA-TA eta akabo beleak!... Baina berek bonbak dituzte. Kaka eginen didate buru gainean. Gerra kimikoa! Gerra biologikoa! Gerra eskatologikoa! GERRA ZIKINA!

Baina, eta orain? Eta bitartean? Orain? Orain, zer? Orain, beleak etorriko dira... edo, igual, talakaren orde, 50 metroko txorimaloak egingen dituzte. Edo eginak dituzte! Hori da! Txorimaloak! Eta gu ezin gara txorimaloak izan! Txorimalo erraldoiak gure orde! Horretan ibili dira! Haize errotak zirelakoan, eta txorimalo erraldoiak dira. Haize errotak ikusten genituen, eta kaka!... Txorimalo erraldoiak! Gureak egin du! Gureak egin du! Haizea gure partez, haize errotak gure orde. Haize errotak zirelakoan, haize errotak zirelakoan... Eta orain ez dago Kixote erorik beren kontra joko duenik lantzaz armaturik, eta Sancho Panza eta Olentzero eta Gargantua, lehertu arte lukainkaz ase! Gureak egin du! Gureak egin du!

(PERTSONAIA aulkian jartzera doa.)

AHOTSA OFFEAN: Meatzariak jasotako eskaintza onartu, eta bertan behera utzi dute Marikanako greba. Grebalariak Marikanako futbol zelaian bildu dira, gaur, eta batzarrak baiezkoa eman dio soldata % 22 igotzeko eskaintzari. Lortutakoa garaipentzat jo dute meatzariak, eta ostegunean itzuliko dira lanera. Lonmin britainiar konpainiaren eta langileen arteko akordioak greba luze eta odoltsu bati ematen dio amaiera, zeinean 45 lagunek galdu duten bizia istiluetan; haie-tarik 34 poliziaren tiroen eraginez hil dira, gainera.

INDARRA

(... baina aitzurra hartzen du.)

PERTSONAIA: Oraindik ez! Orain ez! Orain ez! Hautsi katea! Oraingoan ez! Hautsi katea! Isildu loroa! Isildu loroa! Isildu loroa eta hautsi katea! Hautsi katea!

(*PERTSONAIAk Talakari erasotzen dio.*)

MINUTU BATEKO ISILUNEA

PERTSONAIA: Loroa isildu da. Betiko. Bai, betiko. Loro hau behintzat bai.

Eta orain? Orain, zer?... Agian, beleak gailenduko dira. Txorimaloak egiten badituzte, ez! Baina ni ezin naiz txorimaloa izan. Zakurraren putza beleei eta txorimaloei!

Eta zer eginen dut nik? Behingoz arropak erantzitzi?... Ez, oraindik ez. Katea laburtuko didate. Ziur! Kateak laburtuko dituzte!... Nik, badaezpada, biuletak landatuko ditut. Hori da! Lore pila bat landatu behar dut, badaezpada ere!... Gora gu eta gure ipurdi loratuak!

(*Dena geldirik, PERTSONAIAren inguruan. PERTSONAIA bera ere gelditasun horretara ohitu behar. Mugimendua desagertzen da. Soinua desagertzen da.*)

AGURRA

(PERTSONAIA ikusleei zuzentzen zaie, azkeneko aldiz.)

PERTSONAIA: Ikusi duzue, ezta? Berak bezala. Guk ere ikusten dugu. Eta ez dugu ikusi nahi. Edo ez dugu asmatzen. Eta hau ez da asmakizuna. Baina antzerkia da. Edo ez?

ILUNTASUNA

AMAIERA

Hitzostea

**Gaizka Sarasolaren teatroa:
ahotsen barruko ahotsa**

Oier Guilan

Aurkezpen gisara

Ez da erraza ahots berriak topatzea euskarazko teatro-testugintzan; horregatik, gertatzen denean, dardarka hasten da zaleon jakin-mina. Horrelako zerbait gertatu zitzaidan niri Lesakako Mairu antzerki taldearen lana ezagutu nuenean, 2007ko ADEL (Artedrama Euskal Laborategia) urrunean. Han taularatu zuten *Erregea, soldadua eta bufoia* antzezlan Mairukoek, teatrozaleok hain maite dugun bufoiaren azpigeneroan kokatua.

Gerora, Lesakan Mairukoek antolatu ohi duten Keinu Leihoak kultur jardunaldien antolatzaile gisa jarraitu izan diot haria Gaizka Sarasolari; musikagintzan Xabi Erkiziarekin Ixuriak proiektua egin zuela jakin dut, eta, azkenean, *Urak ttiki dire* proiektuaren harira egin genuen berriro topo. Gilkitxaro taldeko adiskideek sortze prozesuan zela eskaini zuten lanaren zati bat Eztena jaialdiko “Piezak” ekimenean, Gaizka han zela, eta emanaldia osorik estreinatu ostean Mikelazulo kultur elkartearen.

Urak ttiki dire antzezlanak barne-talka eragin zidan. Gilkitxarokoek erronka handia hartu zuten testu hori taularatzekoan, oreka bilatuz beren estiloaren eta Gaizkaren testuaren artean: estreinako aldiz, Galder Perezek Gilkitxarorentzat idatzi ohi dituen ahots eta umore propioko testu bat oinarri hartu gabe, beste egile batek nafarreraren ukituekin idatzitako testu bat hartu zuten, oihartzun politiko sendoko hizkera poetikoz josia. Gilkitxarok egindako interpretazioan, liluratua geratu nintzen aukeratutako pertsonaien ironiarekin, absurdoarekin, eta testua paperean ere irakurtzeko gogo bizia

sartu zitzaidan. Euskarazko teatro-testugintzan gutxitan (eta, hala ere, uste den baino gehiagotan) gertatu ohi den zerbait sentitu nuen: ahots propio baten aurrean egotearen sentsazioa.

Handik ez askora handitu zitzaidan poza: *Urak ttiki dire* ez zen kasu isolatua. Cafe Bilbaok saritu egin zuen Gaizka Sarasolaren beste testu bat: *Lurrazpikoak*. Lan horrek, gai eta estetika aldetik, ez zuen itxuraz zerikusirik aurrekoarekin, baina berehala sortu zitzaidan hura ere irakurtzeko grina.

Hari horietatik tiraka hasi ginen EDO!n argitaratzeko aukera aztertzen, eta prozesuan ginela etorri zen Talaka testu berriagoa ere liburuan txertatzeko modua.

EDO!ren begiradatik

Argitaletxea EDO! proiektua ezohiko lanak argitaratzeko xedez sortu genuen; alegia, ohiko argitaletxeen bidetik plazaratzeko zailtasunak eduki ditzaketan lanak, argitaletxe haien eskaintzaren osagarri. Sumatu genituen hutsuneen artean zegoen teatroak bizi duena. Orain arte, Samara Velteren *Eta Karmele?* izan da argitaratu dugun teatro-testu bakarra, baina lan eszenikoen mundutik oso gertu dago Harkaitz Canoren *Txalorik ez, arren* saiakera, eta *Genero-ariketak* liburuan ere bada oholtza ezagutu duen testurik (*King Kong Neska*). Askok dago egiteko. Guztia dago egiteko. Testuinguru horretan, hutsaren hurrengo da EDO!k egin dezakeena: hutsune horien existentzia nabarmen uztea besterik ez.

Antzerkiaren kasuan, merkatuak markatutako topikoek diote ez dagoela hartzailerik (eroslerik?) teatro-argitalpenentzat, ez dagoela papereratzeko moduko ahotsik. *Eta Karmele?* lana, bazkide eta harpidedunen artean zabaldu ez ezik, bikain saldu zen liburu-dendetan

ere: egile berri batek formatu txikiko teatroaren eremuan sortutako antzezlan batentzat idatzitako testua, Samuel Becketten eraginpean, genero aldetik egungo kezketara egokitua... Esperientzia horrek erakutsi zigun –beste behin ere– falta dena ez dela merkatua, falta dena egon badauden ahots horien alde apustua egitea dela, eta liburu bakoitzaren izaeraren araberrako zabalkundea prestatzea, ez merkatuaren erosokeriaren araberrakoa.

Testuinguru eta asmo horretan, Gaizka Sarasolaren liburuaren ekarpen artistikoa ezinbestekoa iruditzen zaigu, ikusgarri uzteko badagoela egungo teatrogintzan –kanpoan arrakasta izan duten lanen itzulpenetatik haratago, zirkuitu komertzialetan urte luzez nagusitu eta diru-laguntzak irentsi dituzten lanetatik haratago– euskaraz pentsatutako, sentitutako, taularatutako kalitatezko antzerki bat.

Bere poetikoan zorrotza da Gaizka Sarasolaren teatroa, eta bere zorrotzean mingarria. Teatro onak behar lukeen bezala, jendarte batek unean-unean bere buruari egiten dizkion galderak formulatzen ditu oholtzarako moldean, teatroa egun publikoak erantzuten dituen galderen erri-tuala den heinean.

Eta mingarria diot, ezerosoa bezain erreala delako kontatzen duena. Gaizka Sarasolak ez ditu sortu guk ikusi nahi genituzkeen pertsonaiak, ez ditu eman guk irakurri nahi genituzkeen aintiheroi garaikideak, ez ditu formulatu guk nahi genituzkeen estetika eta –esaterako– genero ideologiak. Inguruan duen errealtatea gordin hartu du, eta, bufoiaren arimarekiko fidel, itsusian edertu du, antzerki bilakatuz.

Forma anitz topatuko ditu irakurleak liburu bakarrean, baina, tituluak iradokitzen duen moduan, anitzean uni-bertso berekoak denak.

Urak ttiki dire

Urak ttiki dire nafar erraietatik jauzitako metafora gupidagabea da, kontraesanen eta maitasun keinurik sakonenen artean kokatutako umore ezinezkoa. Gatazka politikoa deitu dugun horrek pertsonengan uzten duen aztarna, modu poetiko eta absurdo batean kontatua. Nola, bestela, azken garaietan eta egun bizi dugun, bizi gaituen egoera ulertzeko ahalegin etengabean gabiltzanean.

Urak ttiki dire lanak zutabe sendoak ditu: sinboloen erabilera etengabea, absurdoaren eragina, umorea eta ironia. Absurdoa esan izan zaion horren baitan topa daitezkeen egile klasikoen ezaugarri hainbat abilezia handiz darabiltza egileak: inora ez doazen dialogo zati zirkularrak, errepikapenak, hoskidetasunak, akotazioetan markatutako isiluneak, egoera geldoak, espazio estatikoak. Beren burua bera ezbaian jartzen duen antzerkia, WILLI pertsonaiak iradokitzen emango duenez:

“Antzerki baterako agertokia dirudi. Basoaren erdian, bidedexka baten bazterrean, horrelako iturri magiko bat. Bitxia, misteriotsua; lilura ere sortzen du basoan galdutako bainera batek, errekastoa zen lekuan”.

Horri gehitu behar zaio obraren ezinbesteko ezaugarri estetiko bilakatzeraino erabili izana egileak berak antzezlan honen harira defendatu duen euskara, nafarrera kutsuko batua: soilik erraietan sentitzen diren gauzak eta formak bilaka daitezke estetika sendo, komunika-bide.

Absurdo on oro bezala, ezintasunaren ereserki bat da *Urak ttiki dire*, ILARGI pertsonaiak dioten moduan:

“Orain ulertzen dut. Baina ez dut ulertzen”. Errealitatea islatzeko modu hobeagorik?

Lur azpikoak

Antzezlan horrek, itxuraz, egoera klasikoago, narrati-boago bat planteatzen digu hastapenean: taberna bat ilunean, bertara linternekin sartzten diren lau gizon. Eta, abiatu ere, narratiboki abiatuko da akzioa, baina berehala sumatuko dizkiogu Gaizka Sarasolaren beste lanek dituzten baliabide hainbat: sinboloen presentzia, kasurako; argiaren erabilera obran zehar.

Eстетikoki karga poetikoa baxuagoa bada ere, gatazka sozialen testuinguru batean kokaturik ageri zaizkigu protagonistak: langileak berak, meatzari ohi zaharrak, krisi ekonomikoen zikloak dakarzkigute gogora, gero eta beltzagoa den zuloa.

Espazioa estatikoa da honakoan ere; akzioa, geldoa. Istoriaren abiapuntu den argi faltak ez du mugimendua bermatzen. Nolanahi ere, egileak trebetasunez daramatza egoerak eskaintzen dizkion elementu eskasen baliabideak dialogoan estetikara; kasurako, mus partida baten erritmo bizia elkarrizketa normal batekin uztartzean. Eta, beste behin ere, antzerkiaren barruan antzerkiari egiten zaion erreferentzia, eta errealtatea ikuskizun bilakatzeari: “Aspertutik bizi behar du inork meatzarien teatroa ikustera joateko!”.

Erregea, soldadua eta bufoia antzezlan hartan bezala, *Urak ttiki dire* antzezlanean bezala, “errege”aren figura botere dekadente baina oraindik “erreal” baten gisa azalduko zaigu hemen ere:

PEDRO (*oihuka*): Eta argia?

(*PEDROk eta LUCASek karta bilatzeari berrekiten diote. MARTIN agertzen da, eta, beste biak lurrian be-launiko ikusita, esku-argia mahaian utzi, eta lagunuen antzera ibiltzen hasten da, jolas moduan.*)

MARTIN: Hau dugu meatzarien martxa, beraz? Horrela egiten dugu orain martxa Madrilera!

PEDRO: Zer diozu?

MARTIN: Martxa! Meatzarien martxa! Erreguka. Lana emateko erreguka. Kauen la sota de bastos! Erregutzeari borroka egitea deitzen zaio orain!

PEDRO: Sota ez. Erregea.

MARTIN: Nola?

PEDRO (*zutituz*): Ezer ere ez!

(PEDRO esertzen da. LUCAS berriz ere eztulka hasi, eta MARTIN hurbiltzen zaio altxatzen laguntzera. LUCAS ere esertzen da. Lasaitzean, tabakoa hartu, eta beste zigarro bat prestatzen hasten da.)

MARTIN: Madrilera bidean ditugu seme-alabak, eskla-boen moduan lanean jarraitu ahal izateko erreguka. Eta gu begira, lur azpiko iluntasunak itsuturiko begiokin.

Mingostasuna, gatazka sozial ororen baitako porrota... Begiak iluntasunera ohituak ditugunean, bada argi posiblerik? Irakurleen esku utziko du egileak erantzuna.

Talaka

Lerro hauek idazten ari naizen unean, Gaizka Sarasola *Talaka* antzezlanaren taularatzean egonen da lanean. Horixe du hiru testuetan berriena, eta experimentalena. Gaizka Sarasola ez da literaturan ernatutako idazle bat,

ez da liburuak xede dituen testugile bat. Eszena pertsona da, eta idazkeran sumatu egiten da hori, *Talaka* bezalako testu batean nabarmen.

- *Talaka* izan daiteke testugintza eszenikoen kezka garaikeidei modurik argienean erantzuten dien lana: Akotazioetan definitu gabeko PERTSONAIA da ardatza, hizkera zikin, ezeroso eta gordinez, krudel ere esango genuke, Antonin Artauden teatroa gogora ekarriz; bufoitsu dator muturreko egoera batean dagoen PERTSONAIA, lanak aurrera egin ahala gero eta muturrekoago.
- *Urak ttiki dire* eta *Lur* azpikoak lanetan, espazioak geldoak ziren, zain zeuden protagonistak. Oraingo honetan, espazioa bakarra da, baina ez dago guztiz geldirik, *Talakaren* egiturari tiraka buelta eta buelta ibili behar duelako protagonistak leku berean, eten-gabe. Beleen mehatxua uxatu nahian.
- Testuaren egitura zatikatua da, atalkako tituluekin antolatua. Eszena-zati bakoitzaren arima adierazten duten titulu laburrak. Bada haietan garapen bat, baina, era berean, nolabaiteko irudi edo pieza minimoak dira.
- Aurreko lanekin zerikusia duen komunikabideen presentzia kasik oharkabekoa, irrati batetik etorritako OFFeko ahots baten bitartez kanpoko mundua iradokiz: Hegoafrika eta meatzarien protestak (meatzariak, beste behin!), poliziaren errepresioa. OFFeko ahotsean, *Urak ttiki dire* eta *Lur* azpikoak bezala, gatazka politiko eta sozialen baitako porrota, edo garapen zati txiki batekin konformatzeko beharra.
- Obraren amaieran, PERTSONAIAk publikoa ikusten du, publikoari zuzentzen zaio, pertsonaiaren azalaren azpian egoera horretan bere burua “arraro” sentitzen

duen aktorea sumatzen du irakurleak... Aktorea edo egilea bera, pertsona.

Ez dakigu zer-nolako itxura izango duen antzezpenak, baina ezin izan dugu ekidin bufoitsu, estetikoki underground, irudikatzea: “Norberaren ametsekin aspertzea baino gauza tristeagorik... JA!”, dio PERTSONAIAK.

Gaizka Sarasolaren liburu hau harribitxia da euskal literaturan: formari dagokionez, teatro-testugintzaren tradizio moderno eta garaikide ugariren aztarnak suma daitezke, eta, garrantzitsuena dena, gaurko jendarteek erantzun nahi lituzketen galderak taularatzen ditu, nabarmen. *Talakako* azken lerroa lapurtuz:

“Ikusi duzue, ezta? Berak bezala. Guk ere ikusten dugu. Eta ez dugu ikusi nahi. Edo ez dugu asmatzen. Eta hau ez da asmakizuna. Baina antzerkia da. Edo ez?”.

Biografia

Gaizka Sarasola

Gaizka Sarasola Iartzabal (Lesaka, 1974). Txistulari eta musika irakaslea. *Mairu Antzerki Tailerraren* sortzaileetarikoa bat. Talde horren zenbait lanetarako musika sortu eta testuak idatzi zituen; horien artean *Erregea, soldadua eta bufoia* antzezlanak, 2005an Bortzirietako Kafe-Antzerki Beka saria jaso zuena. 2015an, liburu honetan argitaraturiko *Talaka* lanaz gain, *Mairuk* eta *Tantirumaitu* dantza taldeak elkarlanean estreinatutako *Bertso atabikoak* antzezlanak idatzi eta zuzendu ditu. Musika arloan, *Ixuriak* eta *Ez naiz deusen jabe* diskoak kaleratuak ditu Xabier Erkiziarekin batera.

argitaletxea **edo!**

Euskara. EDO!-k euskarazko lanak argitaratuko ditu.

Autofinantzatua. EDO! diru irabazi asmorik gabeko egitasmoa da. Litekeena da lan batzuk ordaindu behar izatea, baina ahalegina egingo du bazkideen borondatezko lanean oinarritzeko.

Borondatezko lana. EDO! Borondatezko lanean oinarritzen da; bazkideak eta lankideak dira proiektua bultzatzen dutenak, eta harpidedunak dira proiektuaren oinarria.

Adostasuna. EDO! adostasunean oinarritzen da. Adostasuna da talde lanaren oinarria, eta prozesuek eskatzen duten erritmoen arabera lan egin nahi du.


Edukiak. EDO! liburua eta literatura merkantziaren logikatik ateratzen saiatuko da. Edukiei jarriko die arreta, salmentari beharrear.

Gizarte eragile. EDO!-k zerbitzu publiko gisa ulertzen du bere lana. Kultur eragile soilik ez, gizarte eragile ere izango da.

Pentsamendu kritikoa. EDO! pentsamendu kritikoa eta elkarrizketa sustatzeko tresna izango da.

Independentea. EDO! independentea da alderdi politiko, gizarte mugimendu, erakunde publiko eta kultur industrietatik. Diru laguntzak onartuko ditu, laguntza gisa, proiektuaren printzipioak eta lanak baldintzatzen ez dituzten neurrian.

Kalitatea eta seriotasuna. EDO!-k egiazko edizio lana egingo du argitaratutako lanekin eta publikazio berme guztiak emango dizkio egileari.



Gaizka Sarasolak idatzitako hiru teatro-testu topatuko ditu liburu honetan irakurleak: *Urak ttiki dire*, *Lur azpikoak* eta *Talaka*. Bere poetikoan zorrotza da Sarasolaren teatroa, eta bere zorrotzean mingarria, ezerosoa bezain erreala delako kontatzen duena. Inguruan duen errealtatea gordin hartu du egileak, eta bufoiaren animari fidel, itsusia edertu du, antzerki bilakatuz. Liburu hau harribitxi bat da, ezohikoa euskal literaturan: teatro-testugintzaren tradizio moderno eta garaikide ugariren aztarnak suma daitezke bertan eta, oroz gain, gaurko jendarteak erantzun nahi lituzkeen galderak taularaten dira, nabarmen.